

05

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

KGK

M15M Bilbon

Bilboko M15Mren mobilizazioen inguruko
gizarte dinamikei buruzko azterlana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



M15M Bilbon

Bilboko M15Mren mobilizazioen inguruko
gizarte-dinamikei buruzko azterlana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a 2012ko maiatza

Ale-kopurua: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Javier Arellano Yanguas
Iziar Basterretxea Moreno
Cristina de la Cruz Ayuso

Koordinazioa: Nieves Corcuera Bilbao

Argazkiak: Santiago Yaniz Aramendia

Bildumaren diseinua: Canaldirecto • www.canal-directo.com

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ONA Industria Gráfica, S.A.

ISBN: 978-84-457-3240-3

LG: VI 293-2012

Edukien aurkibidea

AURKEZPENA	9
ESKER ONAK	11
SARRERA	13
1. M15MREN MOBILIZAZIOEN EKLOSIOA BILBON	17
1.1. Udaletxetik Arriagara, Guggenheimetik pasatuz	19
1.2. Hasierako taldearen osaera eta taldekideen kezak	23
2. NOR MOBILIZATU ZIREN?	25
2.1. Bilbon M15Mren mobilizazioetan parte hartu zutenen ezaugarriak	28
2.2. Aurreikustekoa zen pertsona horiek mobilizatzea?	36
3. BARNE DINAMIKAK, ESTRATEGIAK ETA GIZARTE INGURUNEAREKIKO ELKARRERAGINA	41
3.1. Barne-dinamikak: ekintzaren bitartez «gu» bat sortzea ...	43
3.1.1. Emozioa eragile gisa	44
3.1.2. Kontzentrazioaren antolamendu materiala	45
3.1.3. Irtenbide bat bilatu beharra	47
3.2. Mobilizazio-estrategiak	49
3.3. Ingurunearekiko elkarreragina eta gizarte-inpaktua	53
4. M15MREN MOBILIZAZIOAK ETA KOMUNIKABIDEAK	59
4.1. 2011ko maiatzaren 19tik irailaren 15era bitarte M15Mren mobilizazioek prentsan izan zuten presentzia	61
4.2. M15Mren mobilizazioen egunkari-tratamenduaren bilakaera, 2011ko maiatzaren 15etik abenduaren 14ra bitarte	66

5. ZER ADIERAZTEN DIGUTE M15MREN MOBILIZAZIOEK?: IKASGAIAK ETA GALDERAK	69
5.1. M15Mren mobilizazioen etorkizuna	71
5.2. Erakunde politikoei dagokienez	72
5.3. Gizarte-mugimenduei dagokienez	74
5.4. Gizarte-sareei dagokienez	75
5.5. Parte-hartze politikoari buruzko azken gogoeta bat	77
BIBLIOGRAFIA	79
EGILEAK	85
ERANSKIN METODOLOGIKOA	89

Taulen aurkibidea

1. taula.	M15Mren mobilizazioei buruzko artikuluak prentsan nola banatu ziren, egunkariz egunkari, maiatzaren 19tik irailaren 15era bitarte	61
2. taula.	Kategoria adierazgarrien erabileraren maiztasun erlatiboaren konparazioa komunikabideen eta maiatzaren 15eko mobilizazioetako parte-hartzaileen artean . .	63
3. taula.	M15Mren mobilizazioei buruzko kategoria adierazgarrien erabileraren maiztasun erlatiboaren hileko bilakaera egunkari multzo batean	68

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Adinen maiztasuna inkestatutako pertsonen artean, sexuaren arabera	28
2. grafikoa.	18 urtetik gorako inkestatuen ikasketa-maila	29
3. grafikoa.	Ikasketa-maila sexuaren arabera	29
4. grafikoa.	Ikasketa-maila adinen arabera	30
5. grafikoa.	Lan-egoera sexuaren arabera	30
6. grafikoa.	Lan-egoera adinen arabera	31
7. grafikoa.	Mobilizazioaren berri izateko modua	32
8. grafikoa.	Mobilizazioa jarraitzeko modua	32
9. grafikoa.	Parte-hartzea gizarte- eta politika-erakundeetan	33
10. grafikoa.	Parte-hartzea gizarte- eta politika-erakundeetan, erakunde motaren arabera	33
11. grafikoa.	Parte hartzeko arrazoia	34
12. grafikoa.	Parte-hartzearen helburua	34
13. grafikoa.	Botoa aldez aurreko hauteskundeetan	35
14. grafikoa.	Maiatzaren 22ko hauteskundeetan botoa emateko asmoa	35
15. grafikoa.	EAEko gazteek politikarekiko duten interesa	37
16. grafikoa.	EAEko gazteek demokraziarekiko duten asebetetze-maila	38
17. grafikoa.	EAEko gazteek albiste politikoak nola jarraitzen dituzten	38
18. grafikoa.	EAEko gazteen talde edo elkarteetarako kideetasuna	40

Aurkezpena

M15M mugimenduaren sorburuak, izan zuen erakarpen-indarrak eta komunikabideetan lortutako oihartzunak hainbat galdera sorrarazten ditu, bereziki gizarte-partaidetzako modu berriei buruz, ustez gazteek politikarekiko duten interes-ezari buruz edo etorkizunean gizarte-sareek parte-hartze horretan izan lezaketen eginkizunari buruz. M15Mren Bilboko mobilizazioen garapenak gai horiek aztertzeke ematen zuen abagunea ezin hobea zela eta, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroaren lantaldeak ikerketa bat egitea bultzatu zuen Gazteen Euskal Behatokiak, mugimenduaren hasiera-hasieratik.


Mobilizazio hori azaltzen duten gizarte-dinamikak, bertan parte hartzen duten lagunen soslaia, atzean dauden motibazioak eta mobilizaziook eraikitzeke erabili diren antolakuntza-mekanismoak ezagutzea da azterlan honen helburua. Gainera, mobilizazioen xedek argitzea du helburu, bai eta xede horiek lortzeke eragina izan duten kanpoko nahiz barneko faktoreak aztertzea ere. Alderdi horiek argituta, erakundeetatik kanpo politika egiteke azaleratzen ari diren moduei buruzko gako interesgarri batzuk agerian geratzen dira.

Oinarri politikoko herritarren mobilizazioei buruzko azterlan gehienak gertatu eta gero gauzatu ohi dira, sarritan gertakariak jazo eta urte batzuk geroago. Horrelako fenomeno politikoak gertatzen ari diren unean aztertzeke eta eragile nagusiengana zuzenean iristeko aukera bakanetako bat da M15Mren mobilizazioa. Gainera, gazteen sektore bat mobilizazioan protagonista izateak eta gizarte-sareek eta Internetek egiteke garrantzitsua betetzeak berri-tasun-kutsua ematen diote azterlanari. Era berean, gizarte-protestarako nahiz politika egiteke azaleratzen ari diren modu berriak ulertzen laguntzen dute.

Espero dugu azterlan hau gazteei edo herritarren parte-hartzeari nola edo hala lotuta dauden pertsona eta erakunde guztientzat interesgarria eta baliagarria izatea, bai eta ondorengo analisiak eta azterlanak egiteke erreferentzia izatea ere.


Blanca Urgell

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA



Esker onak

Lehenik eta behin, Francisco Garmendia lagun nekaezin eta suharrari eta EUROISako talde guztiari, beren eskuzabaltasunarengatik, prestasunarengatik eta pazientziarengatik. Sonia Vivanco, Silvia Ordóñez, Mónica Valcárcel, Natalia Rashetova, Fran Espinoza, Nicanor Alvarado eta David Guzmán doktoregaiei, ikerketak eten zituztelako inkesten aplikazioan laguntzeko. Xabier Alzugarairi, transkripzioen lana fin baino finago egiteagatik. Jone Goirigolzarri, Esther Escudero, Pablo Garaizar eta Jesús Casquete lagunei, inplikatura ez bazeuden ere betiere laguntzeko prest agertu zirelako. Noemí de la Fuenteri eta Patxi de la Fuenteri, denbora, informazioa eta iritziak partekatzeaz gain, hasiera-hasieratik mobilizazioaren garrantzia ulertarazi zigutelako. Eta azkenik, jakina, Arriagako kanpaldian parte hartu zuten guztiei, «etiketaz» jantzita joanagatik ere inolako baldintzarik gabe onartu gintuztelako.



Sarrera

2011ko maiatzaren 15ean, DRY Democracia Real Ya taldeak, ordura arte jende gehienarentzat ezezaguna zenak, manifestazioak deitu zituen Espainiako 50 hiri baino gehiagotan, «*ez gara politikari zein bankariek saltzeko moduko gaiak*» leloa ardatz hartuta¹. Antolatzaileek uste baino jende gehiagok parte hartu zuen deialdian, baina ezin esan, nolana ere, ikaragarritzko jendetza bildu zenik. Madrilen, 20.000-25.000 pertsona bildu ziren Cibeles plazan (El País, 2011a). Bilbon, berriz, 500 pertsona elkartu ziren udaletxearen aurrean, eta Donostian 1.000 pertsona kaleratu ziren, gutxi gorabehera, antolatzaileen arabera (DRY-Gipuzkoa). Komunikabideetan ere kontzentrazioek ez zuten oihartzun zabala lortu. Horrenbestez, deialdi hori beste manifestazio publiko bat baino ez zela izango ematen zuen, beste ahalegin soil bat alegia, herritarrek krisi ekonomikoaren, goranzko langabeziaren eta gizarte-mozketen politiken ondorioz eratorritako egonezina plazaratzeko erabili nahi zutena.

Alabaina, gehiengo harridurarako, baita gainezka ibili ziren DRYko kideen harridurarako ere, astebete baino denbora gutxiagoan mobilizazioek arnasa hartu eta poliki-poliki hazi ziren; handik gutxira, manifestariak Espainia osoko plazak okupatu zituzten, kanpamentuak antolatuz. Asteak joan asteak etorri, kanpamentuetatik eratorritako jardun eta mezuek komunikabide, erakunde eta alderdi politikoen arreta erakarri zuten. Hasiera batean M15Mko mugimendua, «suminduen» mugimendua edo, arabiar herrialdeen mobilizazioen antzera, *Spanish revolution* deitu zioten mugimendu horri, baina berehala albiste bihurtu zen nazioarteko komunikabideetan (The Economist, 2011; The New York Times, 2011) baita inspirazio-iturri ere beste herrialde batzuetako antzeko mugimenduentzat, Estatu Batuetako *Occupy Wall Street* eta *99% Movement* mugimenduentzat adibidez (Van Gelder, 2011).

Fenomeno deigarria eta ustekabekoa izan da, beraz, eta analisi ugari sortu dira haren harira. Komunikabideetan hainbat iruzkin eta gogoeta ageri dira, eta azken hilabeteetan gaiari buruzko argitalpenak ugaritu dira. Batzuek M15Mko parte-hartzaileen hitzak jaso dituzte (Álvarez, Gallego, Gándara, & Rivas, 2011; Antentas, Fernández-Savater, Muñoz, Requena, & Vivas, 2011). Beste batzuek, berriz, «mugimendurako» ildo programatikoak aurreratu nahi izan dituzte (Taibo et al., 2011; P. Velasco, 2011). Azkenik, argitaratu berri diren beste zenbait analisisik mobilizazioaren arrazoi eta ezaugarriak ikertu dituzte, baita etorkizunean izan dezakeen bilakera ere (Casquete, 2011; Santamaría, 2011; Taibo, 2011).

¹ Deialdiaren manifestua honako honetan irakur daiteke: <http://www.democraciarealya.es/manifiesto-comun/> [Kontsulta: 2012ko apirilaren 23a].

Azterlan horiek guztiak orain gutxi argitaratu dira, eta horregatik gehienek eragina mugatua da, nola egileei mobilizazioetatik interesatzen zaizkien gaiei dagokienez, hala fenomeno aztertzekeo baliatu duten sakontasunari dagokionez. Gainera, kontuan hartzekoa da lan horietako askoren egileak mobilizazioan zuzenean inplikaturako pertsonak direla, «barneko» ikuspegiaren aberastasuna dakarten arren analisiari ukitu apologetiko argia emateko joera dutenak².

Gure azterlana mobilizazioaren lehen faseetan oinarritu da. Lau egunen buruan, maiatzaren 19rako alegia, kanpaldiak eta batzarrak sendotuta zeuden, eta parte-hartzea gero eta handiagoa zen gainera. Horregatik, gure buruari zenbait galdera egin genizkion, eta, galdera horiek ardatz hartuta, ikerketa honi ekin genion: Zein dira mobilizazioekin bat egiten ari direnak et zergatik egiten dute? Ba al da mobilizazioaren barnean nolabaiteko lidertza hartzen ari den norbait? Zein dira buru horiek, nondik datoz? Protagonismo pertsonalei uko eginez horizontaltasuna eta herri parte-hartzea aldarrikatzen duen mobilizazio batek, zer egin dezake bere barne-egitura antolatzekeo? Nola uztartzen dira mobilizazioetan parte hartzen dutenen diskurtsoa eta komunikabideek M15Mren mobilizazioei buruz esandakoa? Zer adierazten digu mobilizazio honen parte-hartze politikoaren mekanismo instituzionalizatuen eta gizarte-mugimendu tradizionalen inguruan?

Galdera horiei erantzutekeo, Bilboko mobilizazioak aztertzekeo ekin genion, kanpo-begiralearen ikuspegi hartzeko erabakia hartuta³. Mobilizazioa begi onez ikusi edo ez eta batzar, lantalde edo mobilizazioetan neurri handiagoan edo txikiagoan parte hartu, guk hasiera-hasieratik oso garbi eduki genuen gure presentziaren helburu nagusia zein zen, hain zuzen ere mobilizazioaren dinamikak ulertzeko beharrezko informazioa biltzea, baina prozesuan eragitekeo inolako asmorik gabe. Horrenbestez, informazioa biltzeko eta analisirako metodologia zorrotzak erabili behar izan genituen, mobilizazioetara behar bezala hurbiltzeko. Hortaz, ikerketa honetan erabilitako datuak bost iturburutatik atera ditugu:

- Sakoneko elkarrizketak egin genizkien Bilboko M15Mren mobilizazioen «antolatzaile» gisa identifikaturako 16⁴ pertsonari.
- Maiatzaren 20tik 22ra bitarte Arriaga antzokiaren plazako kontzentrazioetan parte hartu zuten 222 pertsonari inkesta egin genien ezaugarri demografikoen eta motibazioen inguruan.


² Casqueteren azterlana (2011) salbuespena da aipaturako gainerakoen artean.

³ Madrilan ere egon ginen, bertatik bertara mobilizazioei buruzko inkestak eta elkarrizketak egiteko, baina alde zuzeneko analisia egin ostean zera ondorioztatu genuen, bildutako informazioa ez zela Madrilgo mobilizazioetan parte hartzen ari zirenen adierazgarri.

⁴ Elkarrizketa horietatik 14 guztiz transkribatu ziren, eta 4. atalean aurkeztutako diskurtsoa aztertzekeo erabili ziren.

- M15Mko mugimenduak deitutako manifestazio, kontzentrazio, lan-batzorde eta batzarretan parte hartu genuen.
- Bigarren mailako informazioa bildu genuen, nola M15Mko mugimenduak egindako dokumentuetatik hala bibliografia-iturrietatik.
- Maiatzaren 15etik abenduaren 14ra bitarte, estatuko lau egunkaritan (ABC, El Mundo, El País eta La Razón) eta autonomia-erkidego hiru egunkaritan (Deia, El Correo eta Gara) M15Mren mobilizazioei buruz argitaratutako informazioa sistematikoki bildu genuen.

Hurrengo orrietan, datu horiek erabili ahala, datuak biltzeko erabilitako metodologia eta datuak aztertzeko jarraitutako prozedurak zehaztuko ditugu. Ikerketa bost ataletan banatu da, ikerketa gidatzen duten galderei jarraiki. Lehen atalean, zuzenean inplikaturako pertsonen kontakizunaren bitartez Bilbon mobilizazioa nola sortu zen aurkeztuko dugu, eta mobilizazioaren ezaugarri nagusietako batzuen berri emango dugu. Bigarren atalean, berriz, Bilboko mobilizazioetan parte hartu zutenen ezaugarri batzuk azalduko ditugu, Arriaga antzokiaren plazako kontzentrazioetan egindako inkestei buruzko analisisia erabiliz. Hirugarren atalean, sakoneko elkarrizketen edukia eta M15Mren mobilizazioen jardueretan bildutako informazioa erabili dugu, mugimenduaren barne-dinamikak eta gizarte-ingurunearekiko elkarreragina berreraikitzeke. Laugarren atalean, M15Mko mugimenduko kide aktiboenen diskurtsoa eta komunikabideek mugimenduari buruz eman zuten irudia alderatu nahi izan ditugu. Azkenik, analisi horien emaitza aintzat hartuta, zenbait gogoeta planteatu nahi izan ditugu M15Mren mobilizazioek politikari, herritarren parte-hartzeari eta gizarte-mugimenduei buruz adierazten digutenaren inguruan. Testuan barrena elkarrizketetatik ateratako zenbait esaldi azpimarratu ditugu mobilizazioetan parte hartu zutenen, eta, nolabait M15Mren mobilizazioa sorrarazi zutenen askotariko ahotsei protagonismoa emateko asmoarekin.




KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

1. M15Mren mobilizazioen eklosioa Bilbon





1

M15Mren mobilizazioen eklosioa Bilbon

M15Mren mobilizazioak Bilbon nondik nora ibili ziren ikertzeko, lehenik eta behin, kontzentrazioen lehen egunetan antolamenduan erantzukizun handienak hartu zituzten pertsonak identifikatu genituen. Hasiera batean ez genekien ongi mugatutako antolatzaile talde bat osatu eta bermatuko zen edo ez. Komunikabideek bereiziki Madrilgo mobilizazioa hartzen zuten hizpide, eta bertako mobilizazioek buru argirik ez zutela zioten guztiek, erantzukizunak txandaka hartzen zirela⁵. Bilbon, ordea, ez zen horrelakorik gertatu. Arriaga antzokiaren zabalguneko pertsona aktiboenei galdera gutxi batzuk egitea nahikoa izan zen mobilizazioaren «lidertzat» nor jotzen zituzten jakiteko. Iritzi gehienak bat zetozen, eta berehala 20 pertsona inguruko talde bat zehaztu genuen. Guztira 16 pertsona elkarriketatu genituen galdesorta ireki baten bitartez (ikus eranskin metodologikoa). Bakoitzaren biografiaz galdetu ez ezik, M15Mren mobilizazioetan nola inplikatu ziren, nola antolatzen ziren eta bizitzen ari zirena nola ikusten zuten ere galdetu genien, besteak beste. Lehenik eta behin deigarri egin zitzaigun horietako zortzik DRYren M15Mko manifestazioan parte hartu zutela, eta, hortaz, mobilizazioaren osatze- eta eraldatze-prozesu guztia hasiera-hasieratik ezagutu zutela jakitea. Atal honetan prozesu hori jaso dugu protagonisten kontakizunari jarraiki, eta ondoren zenbait ondorio atera ditugu, elkarriketen datu gehienei buruzko analisia 3. eta 4. ataletarako utzita.

1.1. UDALETXETIK ARRIAGARA, GUGGENHEIMETIK PASATUZ

Aldez aurretik elkar ezagutzen ez zuten 8 edo 10 pertsonako talde batek egin zuen maiatzaren 15ean Bilboko Udaletxearen aurrean kontzentratzeko deialdia. DRYk Facebooken duen

⁵ Gure taldeko kide batzuk Madrilan egon ziren maiatzaren 20tik 22ra bitarte, eta erreferentzia horiek bertatik bertara berresteko aukera izan zuten. Bi egun horietan ezin izan zuten ongi mugatutako antolatzaile taldea identifikatu. Bozeramaileak eta batzordeetako arduradunak txandakatu egiten ziren, arduradunei buruzko erreferentziarik erregistratu gabe. M15Mko mugimenduko behin-behineko bozeramaileen hitzetan, parte-hartzean oinarritutako antolamendu horizontala eraiki nahi zuten, bururik gabe. Nolanahi ere, aipatzekoa da, halaber, lehen egunetan mobilizazioa azkar hazi zela, eta dimentsio horrek gairitu egin zituela parte-hartzea egituratzeko eta horrela batzorde eta taldeen arteko koordinazioa errazteko egindako ahaleginak. Hortaz, aztertu beharko litzateke mobilizazioan nabarmendu ziren «horizontaltasuna» eta erreferente finkorik eza hausnarketa baten ondorioz sortu ziren edo ustekabean gertatutako errealitate berri baten emaitza izan ziren.

foro baten bitartez jarri ziren harremanetan. Gure elkarrizketatutako lau zeuden deitzaile horien artean. 30 urtetik 40 urtera bitarteko pertsonak ziren, goi-mailako ikasketak izanik lanpostu nahikoa egonkorretan zihardutenak. Urrun beraz, mobilizazioari esleitu zaion gazte-profiletik. Aitzindari horietako gehienek interneten bitartez izan zuten DRYren berri. Alabaina, hasierako deialdiaren ardura hartu zuenak honako hau esan zuen: «Ez gaude egun osoa horrelakoetan murgilduta. Izan ere, ni twitterren ez naiz ibiltzen.»

Batzuek adierazi zigutenez, bereziki WikiLeaksen ezagutzera emandakoak adorea eman zien sarean zer gertatzen ari zen jakiteko. Espainian, WikiLeaksen sistema politikoaren funtzionamenduaren inguruan altxatu zuen susmoa Sinde legearen aurkako jarrerekin uztartu zen, ziberaktibisten artean⁶. Esparru horretan sortu zen «ez iezaiezu botorik eman» kanpaina, hauteskundeetan alderdi gehiengodunak zigortzeko eskaera egiten zuena. Alba Muñozek dioenez (Antentas, et al., 2011, 35-36 orr.), hauteskundeen aurreko hilabeteetan internet proposamenez josituta agertu zen: «Jarraian Facebooken *Juventud Sin Futuro* ageri zen[...] Eta beste zenbait talde sortu ziren, hala nola *Plataforma de Coordinación de Grupos Pro-movilización-ciudadana*, *Estado del Malestar*, eta ¡*Democracia Real Ya!* berri bat». DRYren Bilboko «aitzindariak» bat egin zuten jardura horrekin. Haien esanetan, DRYren proposamena bereziki gustatu zitzaizen funtsean proposamen etiko bat zelako, demokrazia birsortzeko deia egiten zuelako eta alderdi politikoetatik aparte zihardutelako.

«Hemen ordena aldatzeko erabakia hartu dugu: lehenik mugitzen gara, eta gero erabakiko dugu zer egin manifestuarekin»

Gure elkarrizketatuetako bat ohartu zen beste hainbat hiritan M15Mko kontzentrazioetarako prestatzen ari ziren bitartean, Bilbon inor ere ez zela ezer egiten ari manifestazioa antolatzeko. Horrenbestez, post bat jarri zuen DRYren Facebooken boluntarioak eskatzeko, eta zenbait interesdun internet bidez koordinatzen eta noizean behin biltzen

hasi ziren. Batzuek «birtualki» ezagutzen zuten elkar baina hala ere harritura geratu ziren hasierako talde horretako kideen profil eta ideien aniztasuna ikustean. Hasteko, pertsona horietako inork ere ez zuen inolako eskarmenturik manifestazio eta ekitaldi publikoen antolaketaren arloan, eta hortaz laguntza eske ibili behar izan zuten internet bidez, megafonia lortzeko, administrazio-baimenak kudeatzeko eta kontzentrazioa iragartzeko kartelen banaketa koordinatzeko.

15eko deialdira 500 pertsona bertaratu ziren, gutxi gorabehera, deitzaileek uste baino gehiago. Azterlan honetarako elkarrizketatu ditugun pertsonetatik lauk une horretantxe egin zuten bat mobilizazioarekin. Ohiko manifestazioetan ez bezala, kontzentrazio honetara bertaraturako guztiei mikrofonoa hartzeko gonbidapena egin zitzaizen, nork bere gogoetak, esperien-

⁶ Zenbait legeren aldaketa dakar berekin, jabetza intelektuala urratzen duten web-orriak ixteko erraztasunak emateko.

tziak, kexak eta abar azaltzeko aukera izan zezan. Esku-hartze horiek eragin handia izan zuten parte-hartzaileen artean, asko haserrea beste hainbatekin partekatzen zutela konturatu baitziren. Eta hor amaitzen da Bilboko M15Mko lehen kontzentrazioan gertatu zenaren kontakizuna.



Madriken, kontzentrazioaren ostean, pertsona talde batek mobilizazioari jarraipena eman zion, hirigunean. Poliziak berehala sakabanatu zituen, ordea. Berrogei bat pertsona Puerta del Solen elkartu ziren, eta zera erabaki zuten, bertan jarraituko zutela maiatzaren 22ko hauteskundeak egin arte, beren haserrea nabarmentzeko. Ordurako mobilizazioek oihartzun handia zuten interneten. Astelehenean, egunsentiarekin batera, poliziak plazan kanpatutako talde txiki hori sakabanatu zuen, baina horrek mobilizazioei are oihartzun handiagoa eman zien, eta sarean haserrea bideratzeko erantzunak ugaritu ziren.

Zaragozako Unibertsitateak azterlan bat egin zuen⁷ apirilaren 25etik maiatzaren 26ra bitarte gizarte-sareetan elkartrukaturako mezuen artean M15Mko mugimenduaren berezko hitzetako batzuk biltzen zituzten 500.000 mezu baino gehiagori buruzko analisisian oinarrituta, eta

⁷ Ikerketaren alde aurreko emaitzak eta grafikoak ikusteko merezi du. Honako honetan daude ikusgai: <http://15m.bifi.es/index.php> [Kontsulta: 2012ko apirilaren 23a].

«Guri gainezka egin zigun. Ondoren gertatu zenak ustekabeen harrapatu gintuen, gainezka egin zigun benetan. Hemengo igandeko kontzentrazioaren ostean, mila mezu elektroniko inguru jaso nituen egun batean, ezinezkoa guztiak irakurtzea»
[M15Mko manifestazioaren antolatzailerak]

tuetako ordezkariak eta gizarte-sareetako ikastunak». Maiatzaren 15ean sare horrek 4.500 erabiltzaile zituen; astebete geroago, berriz, 45.000 baino gehiago ziren, eta igoera hori Soleko sakabanatzearen ostean nabarmendu zen bereziki. Datu hori oso garrantzitsua da, Interneten eragina eta ondoren etorri zena azaltzeko eta ulertzeko lagungarri den heinean.

«Gure artean hainbat gazte eta langabe daude, baina baita beste mota askotako jende ugari ere. Zenbaitek hemen lo egiten dute eta gero lanera, eta lana amaitutakoan, kanpamentura buelta, lo egin, eta berriz ere lanera. Denetariko jendea dago hemen»

tzeko. Handik gutxira 15 pertsonak baino gehiagok beren atxikimendua adierazi zuten. Azkenean, astearte horretan 13 pertsona museoaren atearen aurrean elkartu ziren, eta kanpaldi bat deitzeko erabakia hartu zuten. Guggenheim museoa ez zitzairen toki egokia iruditu, bertatik bereziki turistak ibiltzen zirelako, eta gainera mobilizazioa hirian ezer gutxi nabarmenduko zelako. Hortaz, hirigunerantz jo zuten, eta Arriaga antzokiaren plaza toki egokia zela iruditu zitzairen.

Bertan «ezarri» ziren, eta egun horretan, arratsaldeko 5etako batzarrean, 50 pertsona inguru bildu ziren; arratsaldeko zortzietako batzarrean, berriz, gehiago ziren, 150 pertsona, gutxi gorabehera. Horietatik 27k bertan lotara geratzeko erabakia hartu zuten. Biharamunean, 18an, asteazkena, kanpaldia «sendotu» zen. Goizeko 8etako batzarrean 150 pertsona bildu ziren, arra-

horrek zera utzi zuen agerian, sare bat azkar-azkar eta bere kabuz antolatu zela, kanpoko inolako esku-hartzerik gabe.

Sare horretako nodo gutxi batzuek (% 10) bideratu zituzten mezu gehienak (% 52). Azterlanaren egileek gehien idatzi zuten erabiltzaileen profilarri erreparatu zioten, eta honako ondorio hau atera zuten: «heterogeneoa da, mota guztietako jendea biltzen baitu, hala nola internet erabiltzen ohituta egonik beren kabuz diharduten gazteak, ekintzaileak, joera politiko desberdinetako kazetariak edo komunikazioaren profesionalak, talde antola-

tu zutenetako batzuek gizarte-sareen bitartez jarraitu zuten, gau horretan eta biharamunean, Madrilén gertatzen ari zena. Maiatzaren 16ko (astelehena) goizean, pertsona horietako bik, kontzentrazioarako deialdia egin zuen DRYko taldetik aparte, *Acampada Bilbao* taldea sortu zuten Facebooken, eta Twitterren bidez eta Facebooken zituzten kontaktuen bitartez eman zuten talde sortu berriaren berri. Bitarteko hori erabiliz, beste deialdi bat egin zuten biharamunerako, 17rako alegia, astearte, eguerdiko 12:00etan Guggenheimen bil-

tsaldeko 5etako batzarrean 30 pertsona bakarrik, baina arratsaldeko 8etako batzarrean 500 pertsona baino gehiagoko taldea osatu zen⁸.

1.2. HASIERAKO TALDEAREN OSAERA ETA TALDEKIDEEN KEZKAK

Guggenheim museoko zabalgunean bildutako 13 pertsonen talde heterogeneoa osatu zuten. Gehienak bakarrik azaldu ziren, eta alde zurretik ez zuten bertaratutako beste inor ezagutzen, Facebooken bitartez ez bazen. Batez beste 30 urte zituzten, gutxi gorabehera, baina askotariko bizi-esperientzia eta lan-egoerak zituzten. Eta gauza bera esan dezakegu hasiera batean atxiki zitzaizkien pertsonen dagokionez. Guk 16 pertsona elkarriketatu genituen mobilizazioaren hasierako egunetan antolaketaren ardura hartu zutelako, eta pertsona horiek 24 urtetik 47 urtera bitarteko adina zuten, batez bestekoa 30 urte izanik. Horietatik hiru unibertsitarioak ziren, lau langabeak eta gainerakoak landunak, hurrenez hurren. 16tik 12k unibertsitate-ikasketak zituzten.



⁸ Deitzaileen datuen eta ikertzaileen oharren arabera.

Beren historia pertsonalak ere askotarikoak ziren. Pertsona horietatik bik bakarrik parte hartu zuten alde zurretik alderdi politiko edo sindikatueta; nolana ere, beste lauk zera adierazi zuten, beroriek zuzenean parte hartu ez bazuten ere, beren senitartekoetako batzuek konpromiso politiko eta/edo sindikal sendoak hartu zituztela iraganean. Bestetik, 16 pertsona horietatik gutxienez 7k gizarte-kolektiboetan (GKEak, elkarteak, astialdiko monitoreak eta abar) jardun zuten bere garaian boluntario gisa.

«Hona etorri eta konturatu naiz ni ez naizela zoro bakarra, edo, hobe esanda, benetan zoratuta dagoena mundua dela konturatu den bakarra ez naizela ikusi dut hemen. Eta mundua bere onera ekartzeko asmoa dugu»

Mobilizatzerak zerk eraman zituen galdetuta erantzunak bat etorri ziren gehienetan. Asko politikarien portaerarekin, gizarte-murrizketekin, langabeziaren hazkundearekin, eskubideen galerekin eta abarrekin gogaituta eta haserretuta zuela adierazi ziguten. Pertsona horietako askok Hesselen *Haserretu zaitezte!* (2011) liburu ospetsua aipatu zuten, baina inork ere ez zuen oraindik irakurri. Guztiek ere begi onez ikusten zituzten DRYk proposatutako helburuak eta leloak, eta


alderdi politikoetatik aparte ekimena izatea gustatu zitzaizkien gehien. Oso begi onez ikusi zuten ideologia desberdineko jendeak mobilizazioaren errebindikazioekin bat egiteko aukera izatea, nahiz eta ikuspegi desberdinak zituzten kolektiboa eta kolektiboaren eskariak «apolitikotzat» edo «alderdietatik apartekotzat» jotzean. Bereziki errebindikazio horiengatik hartu zuten kalera irteteko erabakia, baina parte-hartzearen harira sortutako beste zenbait emozioak ere zeresana izan zuten konpromisoari eusteko jarreraren: «beste hainbatekin xede berberak partekatzen ari garen sententzia», «gizarte honetan friki bat ez zarela sentitzea» eta abar.

KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

2. Nor mobilizatu ziren?





2

Nor mobilizatu ziren?

Jende gehienak maiatzaren 18tik aurrera, asteazkena, izan zuen M15Mko mugimendua-
ren berri, irriati- eta telebista-kate gehienak egun horretan hasi zirelako kanpaldiei buruzko aipa-
menak egiten, eta egunkariek ere zenbait artikulua argitaratu zituztelako Espainiako hirietako
plazak hartzen ari ziren taldeen inguruan. Horren eraginez, 19tik aurrera, osteguna, kanpaldi
horietan antolatutako batzarretara askoz ere jende gehiago bertaratu zen. Bilbon, hauteskunde
aurreko ostiral eta larunbatean, 2000-2500 pertsona ere bildu ziren zenbait unetan⁹. Hauteskun-
de Batzorde Zentralak kanpaldi eta kontzentrazioak debekatu zituen, eta horren eraginez, su-
mindurak gora egin zuen, parte-hartzaileen aurrera jarraitzeko gogoia indartu zen eta herri-babe-
sa sendotu zen. Komunikazioek mobilizazioei buruz emandako informazioa aurreiritziz josita
zegoen, komunikabide bakoitzaren ideologiak baldintzatuta. Ildo horretan, mobilizazioetako
parte hartzaileak prekaritatearekin eta langabezia-tasa handiekin haserre zeuden gazteak zire-
lako ideia zabaldu zen. Komunikabide «aurrerakoiek» ulerkor jokatu zuten mobilizazioekiko, eta
batzuetan begi onez ere ikusi zituzten. «Kontserbadoreek», ordea, mugimendua aurkako iru-
dia eman zuten hasiera-hasieratik, mobilizazioak sistemaren aurkako taldeei, ezkerreko erra-
dikalei eta «perroflautei» leporatuz. Partido Popularreko buruzagiek ere bat egin zuten komu-
nikabide kontserbadoreen interpretazio horrekin (La Razón, 2011).

**«Nahikoa da sistema aldatu be-
harra hizpide hartzea sistemaren
aurka ari garela entzun behar
izateko. Eta, niretzat, sistemaren
aurkako jendea, suntsitzeko as-
moarekin indarkeria erabiltzen
duena da. Gu, aldiz, ahotsa erabil-
tzen ari gara, eraikitzeke as-
moarekin gainera.»**

Atal honetan, mobilizatu zirenen profila ar-
gitu nahi dugu, eta zehaztu nahi dugu, halaber,
azken urteetako datu soziologikoen bide ematen
ote zuten horrelako mobilizazio bat gerta zitekeela
pentsatzeko. Mobilizatu zirenen profila eta motiba-
zioa zehazteko, Arriaga antzokiaren plazan (Bilbo)
M15Mren mobilizazioen lehen egunetan egindako
inkesta erabiliko dugu. Testuingurua ulertzeko, be-
rriz, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen
Kabineteak egindako azterlan soziologiko baten
datuak hartu ditugu aintzat.


⁹ Guk egindako estimazioak dira.

2.1. BILBON M15MREN MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTU ZUTENEN EZAUGARRIAK

Zer ezaugarri eta zer arrazoi zituzten maiatzaren 19tik 22ra bitarteko mobilizazioekin bat egin zuten pertsonak? Galdera horri erantzuteko inkesta bat egin genuen maiatzaren 20tik 22ra bitarte Arriaga antzokiaren plazako kontzentrazioan parte hartu zuten 222 pertsonaren artean (112 gizon eta 110 emakume). Parte-hartzaileen oinarrizko ezaugarri demografikoei buruzko informazioa bildu zuten inkestek, baita bertaratzeko zituzten motibazio eta helburuei eta gizar-tean eta politikan alde aurretik izandako parte-hartzeari buruzko informazioa ere¹⁰. Kolektiboaren ezaugarriak aintzat hartuta, ezinezkoa zen alde aurretik taldea zenbatek osatzen zuten edota taldea nola osatuta zegoen jakitea, eta horregatik zera erabaki genuen, inkestak egun horietan egitea baina une desberdinetan eta toki desberdinetan, ahalik eta parte-hartzaile lagin zabal eta osoena lortzeko.

1. grafikoa

ADINEN MAIZTASUNA INKESTATUTAKO PERTSONEN ARTEAN, SEXUAREN ARABERA (K=217) (%)




Erantzunak aztertuta zera ikusten dugu, parte-hartzaileen profila eta motibazioak komunikabideek emandako iruditik nabarmen urruntzen direla. Pertsona gehienak 26 urtetik go-

¹⁰ Galdesorta I. Eranskinean dago ikusgai.

rakoak dira, eta batez besteko adina 30 urtetik gora dabil (1. grafikoa). Emaitzak aditzera ematen digunez, kolektiboak prestakuntza-maila handia dauka, eta % 50ek unibertsitate-ikasketak ditu (2. grafikoa). Ehuneko hori handiagoa da inkestatutako emakumeen artean, eta horietatik % 60k baino gehiagok unibertsitate-ikasketak egin ditu (3. grafikoa). Adinen arabera unibertsitate-ikasketak dituztenen ehuneko handiagoa da 30 urtetik gorakoen artean (4. grafikoa).


2. grafikoa

18 URTETIK GORAKO INKESTATUEN IKASKETA-MAILA (K = 216) (%)




3. grafikoa

IKASKETA-MAILA SEXUAREN ARABERA (18 URTETIK GORAKOAK; K= 216) (%)




4. grafikoa

IKASKETA-MAILA ADINEN ARABERA (18 URTETIK GORAKOAK; K= 216) (%)




5. grafikoa

LAN-EGOERA SEXUAREN ARABERA (K= 217) (%)



Lan-egoerari dagokionez, inkestatuen % 58 lanean ari zen, eta ehuneko hori pixka bat handiagoa zen emakumeen artean (% 59) gizonen artean baino (% 56). Langabeen ehunekoa % 25 zen, nabarmen handiagoa erregistratutako langabezia eta Biztanleria Aktiboaren Inkestan jasotakoa baino. Langabezia nabarmen handiagoa da, elkarrizketatutako gizonen artean (% 30) emakumeen artean (% 20) baino. (5. grafikoa).


Enplegua dutenen ehunekoa % 72 da 30 urtetik gorakoen artean; adin horretatik beherakoen artean, berriz, % 45 baino ez da (6. grafikoa). Datu horrek aditzera eman dezakeenaren kontra, langabezia-ehunekotan ez da alde handirik nabari adinen artean, 30 urtetik gorakoen artean langabezia % 21 eta adin horretatik beherakoen artean % 29 delako. Alde txikiago hori nabari da, logikoa denez, ikasleen ehunekoa handiagoa delako 30 urtetik beherakoen artean, 30 urtetik gorakoen artean baino, % 15 eta % 2, hurrenez hurren



Parte-hartzaile gehienek interneten bitartez izan zuten mobilizazioen berri (% 52). Ehuneko horren barnean hartzen dira informazioa gizarte-sareen (Facebook, Google+, Twitter eta abar) bitartez lortu zuten pertsonak, mobilizazioei buruzko informazioa zekarten web-orri eta blogetan sartzeko internet erabili zutenak eta komunikabideetako on line bertsioak kontsultatu zituztenak. Telebistak eta irratiak batetik (% 38) eta harreman pertsonalek bestetik (% 32) zeresan handia izan zuten, halaber, parte-hartzaileei M15Mren mobilizazioen berri emateko zereginean (7. grafikoa). Azkenik, prentsa idatzia izan zen informazioa eskuratzeko parte-hartzaileek gutxien erabili zuten komunikabidea (% 16).

7. grafikoa


MOBILIZAZIOAREN BERRI IZATEKO MODUA (K= 222; ERANTZUN BAT BAINO GEHIAGO EMATEKO AUKERA) (%)



Inkestak galdera osagarri bat jaso zuen parte-hartzaileak, behin M15Mren mobilizazioaren berri izan ondoren, mobilizazio horiek zer kanaletatik jarraitzen ari ziren jakiteko. Berriz ere internet eta gizarte-sareak izan ziren aipatuena (% 57), baina kasu honetan esan beharra dago irratia eta telebista bidezko jarraipena kontuan hartzeko modukoa izan zela (% 48), internetetik gertu. Prentsa (% 20), kanpamentuan bertan lortutako informazioak (% 17) eta harreman pertsonalek (% 8) askoz ere garrantzi txikiagoa izan zuten mobilizazioen bilakaera jarraitzean (8. grafikoa). Kanpamentuan hedatutako informazioari buruzko datuak agerian uzten du bi parte-hartzaile mota bereiz ditzakegula. Batetik, talde txiki bat zegoen, konpromiso handiko oso per-

8. grafikoa

MOBILIZAZIOA JARRAITZEKO MODUA (K= 222; ERANTZUN BAT BAINO GEHIAGO EMATEKO AUKERA) (%)




tsona langileez osatua, Arriaga antzokiaren inguruan ordu asko ematen zituztenak, eta, bestetik, talde askoz ere handiago bat, mobilizazioaren goreneko uneetan bakarrik ageri zirenak.

Alderdi politiko, sindikatu eta beste gizarte-erakunde batzuetan duten parte-hartzea nahiko txikia da (% 33) (9. grafikoa). Gehienek GKEetan parte hartzen dutela adierazi dute (% 18), eta hainbatek ekarpen ekonomikoa baino ez dutela egiten erantsi dute, parte-hartze «ahultzat» jo dezakeguna. Nolanahi ere, alderdi eta sindikatuetan askoz ere parte-hartze urriagoa dute, % 4 eta % 5, hurrenez hurren (10. grafikoa).


9. grafikoa

PARTE-HARTZEA GIZARTE- ETA POLITIKA-ERAKUNDEETAN (K=222) (%)



10. grafikoa


PARTE-HARTZEA GIZARTE- ETA POLITIKA-ERAKUNDEETAN, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (K=222) (%)



Inkestak parte-hartzearen arrazoiei (zergatik egin duten bat mobilizazioarekin) eta helburuei (zertarako) buruzko zenbait galdera ere bildu ditu. Galdera irekiak ziren kasu batean zein bestean, inkestatuen erantzuna zuzentzeko asmorik ez zuten neurrian. Jarraian erantzunak sailkatu genituen, gure ustez erantzun-aniztasunaren adierazgarri den kategorien multzo bati jarraiki. Parte-hartzearen arrazoiei (*zergatik?*) dagokienez (11. grafikoa), erantzun gehienek nolabaiteko pasibotasuna eman dute aditzera. «Laguntzea» (% 40) eta «jakin-mina» (% 21) bete-betean sartuko lirateke joera horren barnean. «Kexatzeak» (% 24) ekimen-maila handiagoa ematen du aditzera, baina nolabaiteko pasibotasuna nabari da oraindik ere; azkenik, kategoria aktiboenean («aldaketak sortzea») sailkatzeko moduko erantzunak eman zituztenak % 13 baino ez ziren izan. Parte-hartzearen inguruko helburuei (zertarako) buruzko galderak erlatibizatzen ditu emaitza horiek (12. grafikoa). Kasu honetan gehiengo zabal batek «aldaketak sortu» nahi


11. grafikoa

PARTE HARTZEKO ARRAZOIA (K=222) (%)



12. grafikoa

PARTE-HARTZEAREN HELBURUA (K=222) (%)




zituela erantzun zuen. Zergatiari eta zertarakoari buruzko erantzunetan nabari den alde horretatik zera ondoriozta dezakegu, parte-hartzaile gehienek aldaketak nahi badituzte ere, mobilizazioaren alde ezer gutxi konprometitzen direla, inkesta egiteko unean behintzat.

Azkenik, hauteskunde parte-hartzeari buruzko galderei emandako erantzunek aditzera ematen dutenez, mobilizaziora bildutakoek biztanleriaren batez bestekoaren gaineratik parte hartu zuten aurreko hauteskundeetan (% 78), eta maiatzaren 22ko udal- eta foru-hauteskundeetan ere neurri handian parte hartzeko asmoa zuten (% 72). Hortaz, ez dago esaterik pertsona horiek oso eszeptikoak direnik ordezkartza-sistemari dagokionez, ezta gutxiagorik ere «sistemaren aurkakoak» direnik. Eta ezin dugu esan, halaber, mobilizazioko parte-hartzaileek abstentzioaren estrategia aukeratu zutenik.


13. grafikoa

BOTOA ALDEZ AURREKO HAUTESKUNDEETAN (K=216) (%)



14. grafikoa

MAIATZAREN 22KO HAUTESKUNDEETAN BOTOA EMATEKO ASMOA (K=216) (%)



Inkestaren emaitzak lagungarri dira mobilizatu zirenen profila itxuratzeko. Gehienak ez ziren krisi-egoerak zuzenean harrapatutako gazteak, ezta gutxiagorik ere sistemaren aurkako marjinalak ere, zenbait komunikabide irudi hori proiektatzen ahalegindu baziren ere. Izan ere, horrelako profilek nekez lor dezakete mobilizazio handiak osatzea. Mobilizatu zen jendearen profila askoz ere «normalizatuagoa» zen:

- Batez besteko adina 30 urtetik gora dabil; gehienek 20-30 urte dituzte, baina zaharragoen taldeen presentzia ere kontua hartzekoa da, 45 urtetik 55 urtera bitartekoena bereziki.
- Prestakuntza-maila handia dute, biztanleriaren batez bestekoa baino handiagoa.
- Gehienek (% 58) enplegu bat zuten mobilizazioaren unean, baina langabezia-tasa pixka bat handiagoa da Euskadiko batez bestekoa baino, nola 30 urtetik gorako inkestatuen artean (% 21) hala adin horretatik beharakeen artean (% 29).

«Mugimenduak ez zuen profil bakarra, adin guztietako, pentsamolde guztiz desberdinetako jendea zegoen bertan, eta horixe zen ederrena, mugimenduaren aniztasuna alegia»

Bestetik, badakigu internetek eta gizarte-sareek oso zeregin garrantzitsua bete zutela mobilizazioa ezagutzera emateko eta albisteen jarraipena errazteko. Mobilizatu zirenen artean gutxi ziren gizarte- edo politika-taldeetan parte hartzen zutenak. Parte-hartze maila txiki hori bat dator Euskadiko biztanleriaren batez bestekoarekin (ikus 2.2 atala). Hala eta guztiz ere, antza denez, hauteskundeetan parte ohi dute, batez bestekoak baino gehiago parte hartu ere. Azkenik, gehienek kalera ateratzeko aipatutako arrazoiek pasibotasuna adierazten dute nolabait (laguntzea, jakin-mina, kexatzea), baina mobilizazioaren helburuei buruzko galderari erantzutean al-daketa sorrarazteko irrika bizia jarri dute agerian.


2.2. AURREIKUSTEKOA ZEN PERTSONA HORIEK MOBILIZATZEA?

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, mobilizazioaren arrakastak iritzi publikoa ustekabean harrapatu zuen, baita komunikabideak, eta, are deigarriagoa dena, antolatzaileak ere. Harrituta egoteko arrazoirik bazegoen edo horrelako mobilizazioak gerta zitezkeela aurreikus zitezkeen nolabait? Edozein erantzunek berekin espekulazioa ekar badezake ere, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2010eko azaroan egindako «Kultura demokratikoa» azterlanaren emaitzak hartuko ditugu aintzat, M15Mren mobilizazioak gazteek aurreko urteetan zi-

tuzten iritzi politikoen nolabaiteko jarraipena ote diren edo ez aztertzeko¹¹. Gure azterketarako, 21 urtetik 35 urtera bitarteko pertsonen, politikaren eta parte-hartzearen aurreko jarrerak adierazten dituzten lau galderei emandako erantzunetan oinarritu gara¹². Arriagan bildu zirenen artean gehienak adin-tarte horren barruan zeuden, eta horregatik egin dugu hautu hori. Ohiko bihurtu den ikuspegiarekin bat etorritik, gazteak politikatik gero eta urrunago daude, ilusioa galduta, eta inkestaren datu batzuk guztiz bat datoz irudi horrekin, beheko grafikoetan ikus daitekeenez. Hala, 21 urtetik 35 urtera bitarteko pertsonen % 75ek adierazi du politika ezer gutxi edo batere ez zaiola interesatzen (15. grafikoa). Demokraziarekin pozik ez daudenak edo demokrazia gaizki ikusten dutenak, berriz, % 54 dira (16. grafikoa).

15. grafikoa

EAEKO GAZTEEK POLITIKAREKIKO DUTEN INTERESA (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. «Kultura demokratikoa» azterlana, 2010.

¹¹ Azken urteetan zenbait azterlan soziologiko argitaratu dira gazteek politikari dagokionez dituzten jarrerei buruz. Nabarmentzekoak dira Europako Balio Inkestetan oinarritzen direnak. Elzok eta Silvestrek (2010) azterlan zehatza egin dute balio horiek azken boladan Espainian azkenaldian izan duten bilakaerari buruz. Gazteen Euskal Behatokiak «Gazteak» bilduma osatzen du aldi-aldean, besteak beste, EAEko 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazteen jarrera politikoak aztertuz. 2011an herritarren parte-hartzeari buruzko azterlan espezifiko bat argitaratu du, EAEko eta Europako gazteen datuak alderatzeko («Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batasunari buruzko EAEko gazteen iritziak»). Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, Gazteen Euskal Behatokiarekin elkarlanean, «Gazteen argazkiak» izeneko azterlana aurkezten du aldi-aldean, EAEko gazteen jarrera politikoak aztertzeko asmo nagusiarekin.

¹² Esanbidezko eskaerari jarraiki, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eman zizkigun datu horiek, «Kultura demokratikoa» azterlanean bildutako informaziotik abiatuta. Adin-tarte horretako lagina 504 pertsonen osatzen zuten, hautatutako adinetako biztanleen ordezkari zirenak, eta lagin-errorea % 5 baino txikiagoa izanik.

16. grafikoa

EAEKO GAZTEEK POLITIKAREKIKO DUTEN ASEBETETZE-MAILA (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. «Kultura demokratikoa» azterlana, 2010.

Antza denez, ordea, iritzi horiek ez datoz bat beheko grafikoan ikus daitekeen joerarekin. Izan ere, 17. grafikoaren arabera, 21 urtetik 35 urtera bitarteko biztanleen % 59k informazio politikoa komunikabideetan egunero jarraitzen duela onartzen du. Grafiko horretan argi asko ikus daiteke, halaber, ehuneko hori handiagoa dela (% 75) informazio politikoa astean 2 edo 3 aldiz jarraitzen dutenak ere aintzat hartzen baditugu.

17. grafikoa

EAEKO GAZTEEK ALBISTE POLITIKOAK NOLA JARRAITZEN DITUZTEN (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. «Kultura demokratikoa» azterlana, 2010.

«Bat-batean buru bat agertuko balitz, nik hanka egingo nuke hemendik. Baita alderdi politiko bat agertuko balitz edota jarre-rak nolabait erradikalizatuko balira ere»


Nola liteke axolagabekeria nagusi izanik informazio politikoa jarraitzeko maila hain handia izatea? Erantzun argi bat aurkitzea ez da erraza, baina gure ustez honako hipotesi hau baliagarri izan daiteke M15Mren mobilizazioen garapena eta ezaugarrietako batzuk azaltzeko: pertsona horiek politika alde batera utzi nahi dute baina ez arazo publikoen kudeaketari dagokionez, politika bideratzeko historikoki gauzatu diren adierazpide instituzionalei dagokienez baizik.¹³



¹³ Ildo beretik, mendebaldeko gizarte askotan erlijio-sinesmenak desinstituzionalizatzeko prozesua jarri da abian.

Hipotesi horri jarraiki, M15Mren mobilizazioek asmo politiko argia eduki zuten, baina parte-hartzaileetako askok beren asmoak «despolitizatze» joera hartu zuten.

Hona ekarri dugun azken grafikoak (18. grafikoa) aukera ematen digu Euskal Autonomia Erkidegoko 21 urtetik 35 urtera bitarteko pertsonen eta M15Mren mobilizazioetan parte hartu zutenek (9. eta 10. grafikoa) gizarte-taldeetan (alderdiak, sindikatuak, GKEak eta abar) duten parte-hartze maila alderatzeko.



Konparazio horrek agerian uzten du parte-hartze maila txikia dela bi kolektibo horien artean. Nolanahi ere, M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileen artean gehiago dira gizarte-laguntzako edo giza eskubideei lotutako elkarteetan dihardutenak.

Aurreko datuak —gai publikoekiko interesa, kudeaketa instituzionalizatuarekin pozik ez egotea, prestakuntza akademikoa eta gizarte-erakundeetan parte hartzeko ohitura— aintzat hartuta, agian onartu beharrean egon gaitzke, ustekabean etorri izanagatik ere M15Mren mobilizazioek ekarritako haserre-«eztanda» nolabait aurreikus zitekeela. Bestela esanda, atsekabea nagusi zen, eta edozein unetan leher zitekeen, aldeko baldintzak gertatuz gero.



KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

3. Barne dinamikak, estrategiak eta gizarte ingurunearekiko elkarreragina



3

Barne dinamikak, estrategiak eta gizarte ingurunearekiko elkarreragina

Beste hainbat hiritan gertatu zen bezala, Bilbon ere kanpaldia antolatu zen, Arriaga antzokiaren plazan, eta hori hala izan zen, batetik, hainbat pertsona adore hartuta zeudelako M15Mko manifestazioaren ondoren, eta, bestetik, Madrilen gertatutakoaren efektu mime-tikoaren ondorioz. Maiatzaren 16an, astelehena, Puerta del Sol plazan bildutako jendea sakabatu zuten, eta aldez aurretik adierazi dugun bezala, horren oihartzuna azkar-azkar hedatu zen gizarte-sareen bitartez. Kontzentrazio berriak bat-batean osatu zirenez, DRYren manifestua zen antolatzaileen babes ideologiko bakarra (bestetik aipatzekoa da DRYk ez zuela ofizialki bat egin bat-bateko deialdi horiekin).

Areago oraindik, Arriaga antzokiaren ondoan bildu zirenek ez zuten ez bitartekorik ez esperientziarik kanpaldiaren logistika ziurtatzeko. Gauzak horrela, nola antolatu ziren eta zer egin zuten egun gutxi batzuetan M15Mren mobilizazioen gizarte-presentzia sendotzeko? Atal honetan M15Mren mobilizazioek Bilbon izan zituzten barne-dinamikak aztertuko ditugu, lehen mobilizazio-egunei, mobilizazio-estragiei (bilakaera barne) eta gizarte-ingurunearekiko elkarreraginarri lehenetsua emanez. Egindako elkarrizketetan, M15Mren mobilizazioen jardueretan izan dugun parte hartzean eta komunikabideetan jasotako informazioan oinarritu gara azterketa hau egiteko.

3.1. BARNE-DINAMIKAK: EKINTZAREN BITARTEZ «GU» BAT SORTZEA

Guggenheimen ondoan geldituta zeuden 13 pertsonak Arriagara iritsi zirenean, zer egin ote zezaketen aztertzen hasi ziren. Lehenik eta behin, lagun eta ezagunak deitu zituzten SMS mezuen eta Twitterren bitartez. Jarraian, plazan nola antolatu eta zer egin aztertzeari ekin zioten. Nolanahi ere, ez zuten jarduerak planifikatzeko astirik izan. Elkarrizketatuetako batzuek adierazi zuten: «mugimenduak eraman egin gintuen».

M15Mko manifestazioaren haritik, kanpaldiak parte-hartzea sustatu behar zuela uste zuten. Ildo horretan, «mikro irekia» bihurtu zen Arriagaren plazako batzarren nortasun-iku-

rra, eta edonork hitza eska zezakeen batzarretan bere ekarpena egiteko. Dinamika hori hasiera batean erakargarri izan zen, eta batzarretara bertaratutakoen kopurua berehala hazi zen. 17an, asteartea, lehen batzarra antolatu zen arratsaldeko 8retan, eta 150 pertsona bildu ziren. Ondorengo egunetan jende gehiago bertaratu zen, eta ostiral eta larunbatean (maiatzaren 20an eta 21ean, hurrenez hurren) bildu zen jende gehien, 2500 pertsona gutxi gorabehera. Kontzentrazioen arrakastak kontzentrazioen dinamika baldintzatu zuen, baita antolatzailleen portaera ere. Dinamika hori hiru oinarri hauen gainean eraiki zen: emozioa eragile gisa, kontzentrazioaren antolamendu materiala, eta mobilizazioari etorkizuneko irtenbide bat bilatzeko premia.

3.1.1. Emozioa eragile gisa

M15Mren mobilizazioak sistema politikoari leporatu zion zuzenean herritar gehienen interesak ordezkatzeko gaitasunik eza. Kritika horrek alderdi politikoak zituen jomugan, sistemaren eragile nagusiak diren heinean, baita demokrazia parlamentarioaren oinarrian dauden ordezkari-tza-jardunbideak ere. Ildo horretan, «*que no, que no, que no nos representan*» («ez gaituzte ordezkatzeko») izan zen mobilizazioan gehien entzun zen aldarrietako bat. Gauzak horrela, kontzentrazioen deitzaileek oso garbi ikusi zuten «politika egiteko» ohiko moduetatik urundu behar zutela. Hasiera batean «apolitikoak» zirela adierazi zuten.

«Hemen ez dugu kalakan ari-tuko zaigun politikaririk nahi, ezta alderdi politiko jakin baten aldeko deialdirik egingo duen jenderik ere. Hemen, edo-zer gai har dezakegu hizpide, herritarrak garen heinean. Edonori buruzko kritikak egin daitezke, betiere errespetuz, begirunez egiten badira»

Alabaina, laster ohartu ziren asmo guztiz politikoak zeuzkatela, eta beraz hobe zutela beren buruari «ez-alderdikoi» deitzea. Lehen egunetan, ideologia desberdinetako pertsonen arteko elkarriketa izan zen kanpaldietako ezaugarri nagusia. Edonork parte har zezakeen batzarretan, bere iritzia askatasun osoz adierazteko. Askatasun hori zen politika egiteko adierazpide berriaren funtsa. Nahiz eta kexa edo proposamenetan kontraesanak agertu, guztiek ere hitz egiteko askatasuna zuten, eta horixe zen garrantzizkoena.

Guztiok ere suminduta egonik, besteekiko harremana bihurtu zen babestu beharreko balio nagusia, eta kanpaldiaren funtzionamendu-irizpideak balio horren gainean eraiki behar ziren. Norberak plazara zekartzan ideiak eta balioak bigarren maila batera pasatu ziren, dinamika berriaren mendean zeuden heinean. Errebindikazio feministak, mezu sindikalekin parekatzeko moduko eskaerak edota GGKEekiko kidesun-aitorpenak mesfidantzaz hartzen ziren, baita, bazuetan, aurkako jarreraz ere.

Dinamika horretan emozio-maila handia zegoen, eta, horren eraginez, plazan bilduetako askoren ustetan zerbait guztiz berri baten sorkuntzan parte hartzen ari ziren, eta dinamika iraultzaile horrek politika goitik behera aldatuko zuen. Antolamenduan zeregin garrantzitsuagoa hartu zuten pertsonen egindako elkarriketetan ere emozio-maila handi hori nabarmendu zen. Horietako batek zera adierazi zuen, horren harira: «nire bizitzaren gaineko kontrola galdu dut, mugimenduak airean naramalako». Ildo beretik, beste batek honako hau adierazi zuen:

«Gorputzak funtsezkoak dira, eta internetek ez dizu aukera hori ematen. Presentzia, enpatia lortzea ez da erraza. Nik egia esan, soilik interneten bitartez bideratutako mugimenduak babestu ditut orain arte, baina nire iritzia aldatu da honenbestez. Orain oso argi ikusten dut fisikoki biltzea, elkar ikustea, elkarri entzutea eta elkarrekin emozioak sentitzea garrantzi handikoa dela»

Mobilizazioaren lehen uneetan topaketak eragindako emozioak nagusitu ziren, baita aparteko sententzia bat bizitzearen sententzia ere. «Magia» hori babestu beharra zegoen, zatiketa edo gatazka ekar lezaketzen mezuak ahalik eta gehien murriztuz. Suminduta zegoen orori egin behar zitzaion tokia, suminduraren ezaugarriak, arazoei buruz zuen diagnostikoa eta arazo horiek konpontzeko egindako proposamenak edozein izanik ere. Hori bai, diskurtsoak ezin zuten alderdi politiko eta sindikatuen mezuen antzik eduki, neurri batean behintzat.

«Kanpaldiaren barruko harremanak batu egin gaitu, eta harreman horrek proiektu bat eraikitzeak aukera eman digu»

Bilboko kanpaldia ez zen bakarka antolatutako zerbait, beste hainbat hiritan antolatutako kontzentrazioen sare zabalaren parte baizik, eta horrek indartu egiten zuen ekimena garrantzitsua zelako eta «historia egiten ari zelako» sententzia. Kanpaldietan sortutako testu labur eta leloei

buruzko irudiak errez hedatzen ziren gizarte-sareetan, M15Mren mobilizazioa sormenez ari zelako sententziaren eta emozioaren mesedetan.

3.1.2. Kontzentrazioaren antolamendu materiala

Jarraian, antolatzaileek beste zenbait erronkari egin behar izan zieten aurre, hala nola kanpaldiaren gunearen antolamendu fisikoari eta kontzentrazioaren eskakizun logistikoei, gero eta handiagoak zirenak. Izan ere, antolatzaileetako askok zeregin horretan eman zuten denbora asko, kemen handiz jardunez. Eta intentsitate horrek zeresan handia izan zuen M15Mren mobilizazioak gorpuzteko.

Madriren, maiatzaren 16an, astelehena, Soletik irtenarazi zituzten pertsonetako batzuk «Patio Maravillas» izeneko etxe okupan hartu zuten behin-behineko aterpe. Pertsona horiek pla-

zara itzuli zirenean, kolektibo okuparen jendeak babesa eman zien, haien eskura azpiegitura xume bat eta espazioak beren kabuz kudeatzeko beharrezko «teknologia» jarriz. Eragin hori funtsezkoa izan zen arduradun iraunkorrik gabeko antolamendu-egitura horizontala sortzeko.

Hala, poliki-poliki, autokudeaketan eta parte-hartzean oinarritutako filosofia okupa mobilizazioaren logikara bildu zen. Zereginak batzordeen artean banatzen ziren, eta batzordeak poliki-poliki antolatzen ziren, taldeen premien eta ekimenen arabera. Koordinazioa bideratzeko, aldin-aldian batzordeetako ordezkariak batzartzen ziren. Egitura berritzailea zen, erantzukizuna ez zitzaiolako behin betiko pertsona bati edo batzuei esleitzen; aitzitik, erantzukizunak txandakatu egiten ziren, jende berriak mobilizazioarekin bat egin ahala. Unean-unean, zenbait arduradunek beren gain hartzen dute erantzukizun osoa, dagokien aldi osoan zehar. Bizitasunaren eta sormenaren mesedetan doa eskema hori, baina hainbat koordinazio-arazo dakartza berekin.

Bilbon, mugimendu okuparen zenbait kide eta kanpaldiko jendea ideiak elkartrukatzeko bildu ziren zenbait aldiz, eta, hortaz, okupen eragina ez zen oso handia izan. Alabaina, Madril-en probatutako antolamendu-egituraren zenbait elementu errepikatu zituzten. Hasiera batean espazioa antolatzeaz, janaria hornitzeaz, interneterako sarbideaz, megafonia-ekipoak eskuragarri jartzeaz eta abarrez arduratu ziren bereziki. Oso sistema deszentralizatu bat jarri



zen abian, eta, horri jarraiki, bakoitzak zeregin bat aurrera eramateko ardura hartu behar zuen, bere trebetasun eta interesen arabera. Madrilgoaren aldean, mobilizazioa txikiagoa zen, eta gauzak horrela, koordinazio-egitura egonkorragoa ezarri behar zen, zenbait pertsonari etengabeko erantzukizun agerikoagoa emanez. Egunak joan egunak etorri, azpiegitura fisikoak eta logistika-zerbitzuek hobera egin zuten, eta sofistikazioan irabazi zuten. Aldi berean, kanpaldian eskaintako jarduera-eskaintzak ere hobera egin zuen. Hainbat gairi buruzko tailerrak eta hitzaldiak programatzen hasi ziren, eskarmentu handiko zenbait aditu eta kolektiboren laguntzarekin.

Kanpaldiaren logistika antolatzeko zeregina ere garrantzitsua izan zen M15Mko mugimenduaren «ideario» politikoa osatzeko. Antolamenduan gehien inplikaturako pertsonak adierazi zuten, M15Mren mobilizazioek zerbait sortzen ari zirela sentitzeko aukera eman zieten. M15Mren mobilizazioetako protagonistek arazo publikoa dena bestela kudeatzeko proposamen politikoa egin nahi zuten, eta kanpaldiaren kudeaketan parte hartzea proposamen horren labortegi eta metafora bihurtu zen haientzat.

Eredu hori bereziki erakargarria zen zuzenean inplikaturak zeuden pertsonentzat, baina alde batera uzten zituen, batetik, eredia testuinguru zabalagoei aplikatzeko arazoak, eta, bestetik, gutxieneko alderdiei buruzko adostasunak lortzeko benetako zailtasunak.

3.1.3. Irtenbide bat bilatu beharra

Egunek aurrera egin ahala, hasierako berritasunak indarra galdu zuen poliki-poliki, eta mobilizazioak beste zenbait erronkari egin behar izan ziren aurre, batetik, helburu eta proposamenak argitzeko kanpotik zetozen ahotsei erantzun behar zieten, eta, bestetik, kanpaldiaren jarraipenaren inguruan indarrean zeuden jarrera desberdinak eztabaidatu behar ziren. Behin azpiegitura fisikoa finkatuta zegoenean, proposamen programatikoak bilatzeko lanak areagotu ziren. Lana batzordeen arabera antolatu zen, eta batzordeek adostasunak lortu behar zituzten proposaturako gaien inguruan. Ondoren, batzordeetan ez ezik batzarretan ere lortu behar zituzten adostasunak, berriz ere eztabaidatzeko eta onartu edo ez onartzeko. Lan hori nekeza geratu zen, batetik, bertaratuen artean ikuspegi-aniztasuna nagusitu zelako, eta, bestetik, metodologiak adostasun zabalak eskatzen zituelako.

«Orduan, bat-batean larritu ginen: egia da, ez daukagu diskurtsorik, zerbait proposatu behar dugu, baina konponbideak proposatu behar ditugu, kexatzea ez da nahikoa Zerbait aldatuko zuen mugimendua osatu beharrean, gure ahalegin guztiak protesta-kanta batean geldituko ote ziren kezka nagusitu zen gure artean. Nire ustez, mugimenduaren kontzientzia ere hazi da, poliki-poliki»

Parte-hartzean oinarritutako metodoaren aldeko gogo beroa epeldu zen nolabait, eta zenbait tirabira sortu ziren M15Mren mobilizazioen helburuen inguruan eta esan edo isildu behar zutenaren inguruan. Tentsio horiek gorabehera eta parte-hartzean eta adostasunean zenbait gorabehera nabarmendu baziren ere, Bizkaiko M15Mko mobilizazioek zenbait dokumentu sorrarazi zituzten, «ofizial» gisa onartu zirenak¹⁴.

Mobilizazioen hasieran argi geratu zen ikuspegi ideologikoen aniztasuna errespetatu beharra zegoela, baina denborarekin aniztasun hori lausotu zen. Komunikatuak, manifestuak eta «gutxienekoen adostasuna» izenekoaren barnean jarrera jakin batzuk bildu ziren, eta horiek guztiak mugimendu alterglobalizatzailearen barnean sar daitezke (Casquete, 2011). Horren harira, elkarrizketatuetako batzuek zera adierazi dute, ideologia desberdineko jendea biltzeko asmo garbia badute ere, beren eskakizunek ezkerreko sentsibilitateko jendearen artean dutela harrera hobea, funtsean demokrazian sakontzean eta ongizate-estatuaren eta gizarte-eskubideen defentsan oinarritzen direlako.

Bi aste igaro ondoren, M15Mko mugimenduko parte-hartzaileak kanpaldia noiz eta nola amaitu behar zuten pentsatzen hasi ziren. Maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren, kontzentrazioek jendearen arreta galdu zuten, eta gero eta gutxiago bertaratu zen. Kanpaldia bertan behera utzi nahi zuten, baina mobilizazioa guztiz indargabetu gabe. Gainerako hirietako kanpaldietan antzeko egoerak izan ziren. Maiatzaren 27an, Mossos d'Esquadra poliziek M15Mren mobilizazioaren Bartzelonako kanpaldia desegin zuten indarrez, eta horrek mugimenduarekiko herri-babesa biziberritu zuen, irtenbide duin bat bilatzeko xedea behin-behinean alde batera utzita.

Lortutakoa ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintza gidatzeko baliagarri izango zen programa argi baten faltan, kanpaldia noiz eta nola amaitzeko eztabaidaren haritik, mobilizazioaren etorkizunari buruzko eztabaidak etorri ziren.

Parte-hartzaile talde handi batek, kanpaldiaren hasieran zeuden gehienak biltzen zituenak, zera uste zuen, plaza hustu behar zutela kanpaldiari irtenbide duin bat emateko, eta, adi berean, lehen mobilizazio-egunetako herri-babesari eusteko. Kanpadendetan denbora gehien zeramatenek, etxerik gabeko pertsonen talde batek bereziki, kanpaldiari eutsi nahi zioten. Bi talde horien arteko eztabaidek zenbait aste iraun zuten. Estrategia politikoaren arabera, onena kanpaldiari amaiera ematea zen. Mugimenduak, ordea, sentsibilitate «barne-hartzailea» zuen, eta gainera plazan jarraitu nahi zutenen erabakia errespetatu beharra zegoen, areago oraindik beste inora joan ezin zitezkeela aintzat hartuta. Azkenik, erabaki bateratuak hartzeko zailtasunen ildo beretik, konpromisozko formula baten aldeko hautua egin zuten. Kanpaldia ofizialki

¹⁴ Ondoko webgunean kontsulta daitezke: <http://bilbao.tomalaplaza.net/propuestas> [Kontsulta: 2012ko apirilaren 23a].

desegin zen, baina bertan jarraitu nahi zutenen borondatea errespetatu zen, Bilbon ezkutatu nahi den marjinazio-errealitate bat indarrean dagoela nabarmentzeko.

Mobilizazioa indartzen jarraitu beharra zegoen, eta horregatik mobilizazioko parte-hartzaileek zera adierazi zuten, plaza hustu behar zutela estrategia-aldaketa bati jarraiki, parte-hartzea eta herri-babesa indartzeko asmoarekin: «ez goaz hemendik; horren orde, zabaldu egingo gara». Datoren atalean, M15Mko estrategiak nola bilakatu ziren aztertuko dugu, baita mobilizazioa Bizkaiko herri eta auzoetara eramateko erabakiaren ondorioz nola eraldatu zen aztertu ere.

3.2. MOBILIZAZIO-ESTRATEGIAK

Orain artean ez dugu «mugimendua» edo «gizarte-mugimendua» terminoa erabili M15Mren mobilizazioak hipzide hartzeko. Komunikabideek, M15Mren mobilizazioetako aktoreek (Álvarez, et al., 2011; Antentas, et al., 2011) eta zenbait iruzkingilek (Casquete, 2011; Taibo, 2011; Taibo, et al., 2011) hasiera-hasieratik gizarte-mugimendu batekin lotu zituzten kontzentrazio eta kanpaldiak, baina hautu hori zalantzan jartzeko arrazoiak badaudela uste dugu. Ikuspegi akademikoaren arabera gizarte-mugimendua zer den aztertzen hasi eta «etiketen» balio analitikoaren inguruan eztabaidatu beharrean, betidanik gizarte-mugimenduzat jo direnek M15Mren mobilizazioekin zer antzekotasun eta zer desberdintasun dituzten eztabaida labur bat egitea gure ustez lagungarri izan daiteke, mobilizazioen ezaugarri batzuk eta horien bilakaera nondik nora joan daiteken argitzeko.

Gizarte-mugimenduak aztertzen dituzten gehienek bereizketa argia egiten dute mugimendu horien eta gizarte-protesta soilen artean (Goodwin & Jasper, 2009, 3.-7. orr.; Opp, 2009, 31.-42. orr.; Tilly & Wood, 2009, 5.-11. orr.). Bereizketa horien guztien arabera, gizarte-protesta orok, funtsean, protesta-osagairen bat dauka, baina protesta oro ez da gizarte-mugimendu bat. Goodwinnek eta Jasperrek gizarte-mugimenduari buruz emandako definizioak adostasun zabala lortu du (2009, 3. orr.):

«Gizarte-mugimenduak ahalegin kontziente, iraunkor eta adostuak dira, pertsona arruntez osatutako taldeek, instituzio formaletatik aparteko tresnak erabiliz, gizartearen alderdi batzuk aldatzeko abian jartzen dituztenak. Gizarte-mugimenduak kontzienteagoak dira eta antolatuago daude behin-behineko protestak baino, eta azken horiek baino iraupen luzeagoa dute. Zenbait gizarte-erakundek gizarte-mugimenduetan parte har dezakete, baina gizarte-mugimenduek erakunde horien esparrua gainditzen dute. Botere politiko, ekonomiko edo militarretako eliteetatik kanpoko jende arruntak osatzen ditu normalean. Sarri helburu politikoak dituzte, hori ezinbesteko baldintza ez bada ere»

Ikuspegi historiko batetik abiatuta, Tillyk (2009, 7. orr.) definizio zehatzagoa eman du, gizarte-mugimenduak ezinbestean eduki beharreko hiru osagai aipatzen dituen neurrian:

Kanpainak, kolektibo batek agintariei zerbait eskatzeko abian jarritakoak; eskariak nabarmentzeko antolatutako jardunen bilduma, hala nola erakunde espezializatuen sorkuntza, topaketa publikoak, manifestazioak, komunikatuak komunikabideetan eta abar; eta eskarien errespetagarritasuna eta balioa, kolektiboaren batasuna, kide kopurua eta kausaren aldeko konpromisoa jendaurrean jakinarazteko ahalegin antolatu bat.

Definizio horiek orain artean maiatzaren 25eko mobilizazioei buruz egin dugun deskribapenaren aldean jartzean, zera ikusten dugu, nekez ondoriozta dezakegula mobilizazio horiek «gizarte-mugimendu» bat osatzen dutela. Hala ere, zentzu positiboago batean konparazio hori lagungarri izan daiteke ezaugarri horietako batzuk aztertzeke eta alde zuzenaren ondorio ateratzeko:

1. Antza denez, definizioen arabera zenbait kolektibo antolatu behar dira neurri handiagoan edo txikiagoan zehaztutako agenda baten inguruan. Pertzepzio hori honako honen ondorio izan daiteke: gizarte-mugimenduei buruzko azterketa gehienak mugimendu horiek nola sortu ziren zehatz-mehatz ikertzen ez duten berreraikuntza historikoetan oinarritzen dira. Oso litekeena gizarte-mugimendu askoren sorkuntzan subjektua guztiz eratu gabe egon izana, eta gero poliki-poliki indartu izana, mobilizazio-prozesuak aurrera egin ahala. Hala balitz ere, M15Mren mobilizazioen kasuan argi geratu da kontzentrazio eta kanpaldietarako deialdien aurretik ez zegoela inongo subjekturik.


Parte-hartzaile gehienak banan-banan azaldu ziren kanpaldietara, inolako helburu komunikatu gabe. Jarraian, mobilizazioak bultzaturik, subjektu kolektibo bat osatu zen poliki-poliki, baina oraindik egonkortu gabe dago eta nola bilakatuko ote den ez dakigu.

Horrek ez du esan nahi zenbait kolektibok mobilizazioekin bat egin ez dutenik, baina kolektibo horiek, hasiera batean behintzat, ez ziren erabakigarriak izan ez M15Mren mobilizazioen edukia finkatzeko, ez haien arrakasta bermatzeko. Ezbairik gabe, komunikazioaren teknologiek zeresan handia izan dute prozesu horretan. Iraganean, M15Mkoa bezalako mobilizazioak deitzeko behar-beharrezkoa zen, batetik, pertsonak eta erakundeak alde zuzenetik biltzea, eta, bestetik, mobilizazioak prestatzeko denbora gehiago edukitzea. Eta oso litekeena da bi faktoreek eragina izatea subjektu kolektiboak sortzean, mobilizazioaren lehen manifestazio publikoen aurretik.

2. M15Mren mobilizazioak hasi zirenean, eskari-agenda ongi zehaztu gabe zegoen, baita eskari horien jomugan zeuden agintariak ere. Hasiera batean, jendeak sistema politikoaren funtzionamenduarengatik eta sistema horrek finantza-botereen alde egin izanagatik bere sumindura eta haserrea adierazi nahi zuen. Geroago, kanpaldien biltartez, mugimendua gogoeta egiten hasi zen, nola arazoaren diagnostikoaren inguruan hala proposamenen inguruan.

Prozesu hori ez da oraindik amaitu, eta, aurreko ataletan adierazi dugunez, hainbat zailtasun aurkitu ditu bidean. Dagoeneko zenbait hilabete igaro badira ere, oraindik ezin dezakegu zehaztu prozesuak huts egin duen edo oraindik ere artikulazioaren lehen faseetan dagoen.

3. M15Mren mobilizazioetan askotariko jardunak antolatu dira (*performanceak*), eta horri esker herritarrek mobilizazioaren berri izan dute. Gizarte-mugimenduak osatzeko prozesuetan oro har, alde aurretik kolektibo bat ageri da agenda zehatz batekin, eta, jarraian, kolektibo horrek zenbait «jardun» antolatu ditu jendaurrean, beren eskariak ezagutzera emateko eta legitimatzeko, gizarte-laguntza eskatzeko eta boteredunen jarduna erreklamatzeko. Kasu honetan, ordea, lehenik errepertorioa etorri zen, kanpaldiek eremu publikoa hartzea alegia, eta hortik aurrera subjektua eta agenda eraikitzen hasi ziren.



4. Azkenik aipatzekoa da M15Mren mobilizazioetan parte hartu dutenak tentu handiz ibili direla irudia zaintzeko, eta horrela gizartearentzat oro har erakargarri izateko. Horretarako alderdi politikoak, sindikatuak eta finantza-botereak kritikatzeko diskurtsoa sortu dute eta ozenki aldarrikatu dute, gizartearen sektore zabalen egonezinarekin bat etorritz. Hasiera batean, kritika hori bideratzeko erabilitako diskurtsoak ez zuen egungo sistema politikoa indargabetzea aldarrikatu, sistema hori berritzea baizik. Aldi berean,

jardunen bitartez ahalik eta gutxien hautsi nahi zuten, eta, aldi berean, indarkeriatik bereizteko, sentsibilitate guztietara zabaltzeko eta ukitu ludikoa emateko aldarrikape-nak egin zituzten. Espazio publikoa hartzea izan zen benetako arau-hauste bakarra, eta nolana ere esan beharra dago Bilbon eta hiri gehienetan, agintariekin isilbidezko adostasuna lortu ondoren egin zutela. Gainera, bereziki azpimarratu nahi izan zuten ez zutela inolako zerikusirik indarkeria erabili zezakeen ezain talderekin, eta kanpaldira hurbildutako guztiak eskuzabaltasunez hartzeko gogoia zutela erakutsi zuten¹⁵. Izan ere, kanpaldian ikusgai zeuden eslogan eta mezu gehienek eta parte-hartzeko dina-mika nagusiek zerikusi handiagoa zuten batasun-sentimenduak eragindako emo-zioekin diskurtso ideologiko batekin baino.

Mobilizazioaren hasierako arrakastak frogatu duenez, lehen egunetan estrategia hori erakar-garria eta eraginkorra izan zen. Hala eta guztiz ere, alde aurretik adierazi dugun bezala, poliki-poliki agerian geratu zen mugatuta zeudela proposame-nak sortzeko kanpotik zein barnetik gero eta gehia-gotan egiten zitzaizkien eskariei erantzuteko. Egu-nak joan egunak etorri, M15Mren mobilizazioetako bozeramaileek errepikatu behar izan zuten beren zeregina ez zela proposamenak egitea, baizik eta egonezin handia zegoela erakustea eta arazo pu-blikoa dena beste logika batzuen arabera kudea daitekeela frogatzea, kalea hartuz eta funtzionamendu modu berria abian jarriz. Alabaina, argu-dio horiek ez ziren nahikoak izan jarrera jakin bat hartzea eskatzen zietenen ahotsak baretzeko, eta azkenean zenbait dokumentu landu behar izan zituzten M15Mren mobilizazioak jendaurrean aurkezteko.

«Mugimenduaren asmoa ez da kontsentsua erakitzea, tresna bat sortzea baizik. Mugimendua bera, eta mugimenduaren hasie-ra bera. Gizarte-kontzientzia sor-tzea, ezarritakoa zalantzan jar-tzeko kontzientzia, nolabait, plazara datozen askok esaten dutena: «ni esnatu egin naiz; orain arte lo nengoen!»

Lehen hilabeteetan, Bizkaiko M15Mren mobilizazioek bi dokumentu sortu zituzten, nola-bait «programatikotzat» jo ditzakegunak. Lehenik eta behin, ekainaren 19eko manifestazioaren amaieran komunikatu bat irakurri zuten, DRYk M15Mko kontzentrazioak deitzeko erabilitako manifestuaren funtsezko gaiak bildu zituena. Bigarren dokumentuari «gutxienekoen adosta-suna» deitu zioten¹⁶. M15Mren mobilizazioek partekatutako gutxieneko proposamenak bildu dira manifestu horretan. Adostasun hori lortzeko bi hilabeteko lana eskatu zuen, baina beste zenbait bertsio ere sortu ziren tartean, «behin-behinekoz» ontzat eman zituztenak.

¹⁵ Ildo horretan, zenbait arau ezarri zituzten, alkohola debekatzea adibidez, liskarrak eta irudi txarra saihesteko.

¹⁶ <http://bilbao.tomalaplaza.net/propuestas/webgunean/kontsulta/daiteke> [Kontsulta: 2012ko apirilaren 23a].

Aurreikustekoa zen bezala, eztabaidak luzeak eta neketsuak izan ziren. Hainbat hiritan antolatatu zituzten aldi berean, baina azkenean kanpaketa bakoitzak askatasun osoa izan zuen bere jarrera eraikitzeko. Eztabaida horiekin batera, M15Mko ideologia gorpuztu zen. Hasierako zehaztugabetasunaren ostean, proposamenek gero eta antz handiagoa hartu zuten ezker alterglobalizatzailearen berezko jarrerekin. Nolanahi ere, esan beharra dago dokumentu horien idazkuntzan askoz ere jende gutxiagok parte hartu zuela M15Mren mobilizazioetan parte hartu zuenak baino, eta hortaz, azken horien artean, asko direla hedatu eta ezagutarazi gabeko proposamenak.

Trailean berriz ere elkartu ginen maiatzean elkarrizketatutako pertsonetako batzuekin. Mobilizazioarekiko zuten gogo bizia desagertua zen, eta nahikoa atsekabetuta zeuden udan zeharreko bilakaera zela medio. Nolanahi ere, kritikak askotarikoak ziren, baita, batzuetan, elkarren aurkakoak ere. Batzuen ustetan, M15Mren mobilizazioak inistituzionalizatzen ari ziren, «politika zaharkituaren» ohitura txarrak hartuz, non gutxi batzuek erabakiak hartzen dituzten eta ordezkatzan ez duten jendearen izenean hitz egiten duten. Beste elkarrizketatu batzuen iritziz, ordea, batzarren bidezko dinamika kaltegarria zen, eraginkorra ez zelako eta askori M15Mren mobilizazioetan jarraitzeko gogo kentzen ari zitzaielako.

3.3. INGURUNEAREKIKO ELKARRERAGINA ETA GIZARTE-INPAKTUA

Dokumentuaren hasieran aipatu dugunez, gure analisiaren bitartez M15Mren mobilizazioetako lehen etapetarako hurbilketa moduko bat egin nahi dugu, M15Mren mobilizazioetan parte hartu zutenek mobilizazioei buruz eta mobilizazioetan izandako esperientziari buruz egingadako adierazpenei adi-adi behatuz. M15Mren mobilizazioek beste gizarte-talde batzuekin eta mobilizatu nahi zuen gizartearekin ezarri zuen harremana ere bildu nahi izan dugu ikuspegi horretara. Atal honetan harreman horiek aztertu nahi ditugu bereziki, eta, halaber, M15Mren mobilizazioek gizartean izan zuten inpaktura hurbildu nahi dugu, tentu handiz bada ere.

Hasiera batean, M15Mren mobilizazioek era batera edo bestera sistema politikoarekin edo ekonomikoarekin zerikusia duten erakunde guztiak kritikatu nahi izan zituzten. Alderdi politikoak, enpresa handiak —finantza-arlokoak bereziki— eta sindikatuak barne. Nolanahi ere, beste zenbait erakunde ere kritikatu nahi zituzten, hala nola GKEak batetik, aurrekontu publikoaren mendetasun handia izanik boterearekin ados jarrita jardutearen susmopean hartuta, eta gizarte-mugimenduak bestetik, moteltasuna leporatuta. GKEei eta gizarte-mugimenduei «zaharkituta» zeudela ere leporatzen zieten, baita «ortodoxia» alternatibo bat sortu izana ere, parte hartu nahi duen orok onartu beharrekoa. Horren aurrean, M15Mren mobilizazioek parte-hartze irekia eskaini nahi zuen, inolako ortodoxia onartu beharrik gabe. Nahi zuten guztiek beren



iritzia eman zezaketen, eta iritzi horiek guztiak errespetu handiz entzuten ziren. Bilboko M15Mren mobilizazioetako sustatzaileetako gehienek gizarte-gaiekiko sentsibilitatea adierazi nahi zuten, baina aldi berean, hotz agertzen ziren gai horien alde betidanik jardun duten ohiko gizarte-mugimendu eta erakundeekin. Erakunde bateko kide zirenek edo kide izandakoek argi ikusten zuten M15Mren mobilizazioetan parte hartzeko beren kidesuna nabarmentzeari uko egin behar ziotela dinamika berriarekin bat egiteko, pertsona bakoitzak adierazitakoari bakarrik balioa emanez¹⁷.

Gainerako gizarte- eta politika-aktoreek susmopean hartu zituzten M15Mren mobilizazioak, eta hainbatek aurkako jarrera argia ere erakutsi zuten. Alderdi politikoak, PP eta PSOE gehiengodunak bereziki, M15Mren mobilizazioen lehen jomuga eta jomuga nagusia izan ziren. Gainera, udal-hauteskundeak baino pixka bat lehenago agertu ziren, eta horrek kolokan jartzen

¹⁷ Elkarrizketatuetako bat sindikatu bateko kidea zen. Beste bat, berriz, alderdi politiko bateko kide izandakoa zen, baina alderditik alde egiteko erabakia hartu zuen barne dinamikek huts egin ziotelako eta banakoaren ekimenak mugatuta zeudelako. Beste zenbaitek adierazi zuten gizarte-arretako eta astialdiko erakundeen laguntzaile gisa arituak zirela, gehienetan boluntario moduan Azkenik aipatzekoa da gutxienez hiruk adierazi zutela iraganean konpromiso sindikala eta politikoa intentsitate handiz bizi zutela beren familietan.

zuen alderdi horien legitimitateari eusten dion ordezkaritza-sistemaren legitimitatea. Hasiera-hasieratik, Alderdi Popularrak M15Mren mobilizazioen aurkako jarrera argia erakutsi zuen. Mobilizazioaren lehen uneetan, alderdiko buruzagiek ezkeraren manipulazio bat zela adierazi zuten, hauteskundearen emaitzetan eragiteko asmoarekin bultzatutakoa (El Mundo, 2011). Mobilizazioa alderdi sozialistaren ildo nagusiekin eta interesekin bat ez zetorrela ikusi zutenean, diskurtsoa gogortu egin zuten, eta «sistemaren aurkako jendea» (La Razón, 2011) eta beste zenbait adjektibo deskalifikatzaile erabiltzen hasi ziren. Alderdi sozialistako kideak, berriz, mobilizatuengana hurbiltzen ahalegindu ziren hasiera batean, protestak «ulertzen» zituztela adierazteko. Alabaina, mobilizatu zirenek inolako hurbiltzarik ez zutela nahi egiaztatu ondoren, buruzagi sozialistek nolabaiteko oreka bilatu behar izan zuten, beren gobernuaren kudeaketa gogor kritikatzeko zuten mugimendua ez bultzatzeko, eta, aldi berean, alderdiaren aldekoak izaki M15Mko errebindikazioekin bat zetozenen artean aurkako jarrerarik ez sorrarazteko. Zalantzarik gabe, Izquierda Unida zen hasiera batean M15Mko errebindikazioekiko adostasun-maila handiagoa zuen alderdiak (Público, 2011), baina hurbiltzeko eta jarduera batzuetan parte hartzeko ahaleginak egin bazituzten ere, kanpaldietan zeudenek ez zituzten ongi hartu (El País, 2011b). Hala, mobilizazioen aldeko jarrerari eutsi bazioten ere, IUko kideek mobilizazioetatik aparte jarraitu zuten.

Euskadin, mobilizazioaren jatorri espainolak alderdi abertzaleen ikuspegia baldintzatu zuen. Alderdi abertzale guztiak, Aralar, EA eta Bildu koalizio abertzalea barne, M15Mren mobilizazioetatik guztiz aparte jardun zuten hasiera-hasieratik, nahiz eta haien errebindikazio batzuk mobilizatuaren idearioarekin bat etor zitezkeen, eta antolamenduan hasiera-hasieran inplikatu zirenetako batzuek beren abertzaletasuna argi eta garbi adierazi zuten arren. M15Mren mobilizazioak Bizkaian, eta, oro har, Euskadin, Espainian gertatzen ari ziren mobilizazioen parte ziren, eta gainera auzi nazionala ez zen funtsezkoa, ez errebindikazioetan ez batzarren eztabaidetan; horregatik mundu abertzaleak mobilizazioetatik bereizteko erabakia hartu zuen¹⁸. Ondorengo atalean ikusiko dugunez, Gara izan zen, alde handiarekin gainera, M15Mren mobilizazioei buruzko informazio gutxien eman zuen egunkaria.

Mugimendu feministak, ekologistak eta nazioarteko elkartasunaren aldeko mugimenduak ere M15Mren mobilizazioetatik aparte egon ziren hasiera batean, mobilizazio-prozesuari aldi berean jakin-minez eta mesfidantzaz begiratuz. Mugimendu horietako parte-hartzaile batzuk M15Mren mobilizazioen batzarretara hurbiltzen ziren, baina betiere dinamikaren bazterretan kokatzen ziren. Batetik, eztabaidak oso azalekoak eta zehaztugabeak zirela uste zuten, eta hori bereziki harrigarri eta sumingarria zen haientzat, mugimendu horiek gai horietan lanean urte asko daramatzatela kontuan hartuta. Jende horrentzat harrigarria zen, halaber, M15Mren mobilizazioek jende asko mobilizatzeko eta jende askoren arreta erakartzeko gaita

¹⁸ Hainbat begiraleren aburuz, deigarria gertatu zen M15Mko batzarretan Espainia izatea erreferentzia geografiko eta politiko bakarra. Gainera, euskara oso gutxi erabili zuten batzarkideek, nola jendaurreko hitzaldietan hala kanpaldietako karteletan. M15Mko mugimenduko kideak euskararen erabilera sustatzen ahalegindu ziren, egunek aurrera egin ahala.

sunazatea, haien orain arteko eskarmentuaren arabera, jendea mobilizatzea askoz ere zailagoa zelako. Asteek aurrera egin ahala, M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileak eta zenbait gizarte-talde (bereziki ekologistak eta *gutxitzearen* aldeko mugimenduko kideak) elkarrengana hurbildu ziren.

M15Mren mobilizazioek ingurunean eragin zuten inpaktua neurtzea ez da lan erraza. Hauteskundeen aurreko lehen egunetan jendea biltzeko erakutsi zuten gaitasuna harrigarria izan zen benetan. Nolanahi ere, hauteskundeetako datuak ikusirik (boto zuriak, boto baliogabeak eta alderdi bakoitzak lortutako botoak) zera ondoriozta dezakegu, mobilizazioek oso eragin urria izan zutela udal-hauteskundeen emaitzetan. Estatu-mailako azaroaren 20ko hauteskunde orokorretan, aldiz, zenbait alderdi gutxiengodunek (UPD, IU, Amaiur) gorakada handia izan zuten, baina ez dirudi boto-aldaketa hori M15Mren mobilizazioen ondorioz etorri zenik.

Maiatzaren 22ko hauteskundeen ostean, batzarrak eta kanpaketak poliki-poliki hustu ziren. Zenbait agintarik baldarki jokatu zuten, ordea, eta Bartzelonako kanpaldia indarrez desegin ondoren, parte-hartzea berpiztu egin zen behin-behinean. Alabaina, erreakzio horrek ez zuen asko iraun, eta M15Mko mugimenduko jendea mobilizazioari jarraipena emateko modua bilatzen hasi zen. Bi irtenbide proposatu ziren. Batetik, mobilizazioa deszentralizatzeko proposame-



na egin zen, hau da, kanpaldiak hiriguneetan antolatu beharrean, auzo eta herrietan parte-hartzean oinarritutako prozesuak sustatzea proposatu zuten. Baina estrategia horrek ez zuen arrakasta handirik ekarri. Bizkaian, tokiko 16 batzar sortu ziren, baina gehienek aste gutxi batzuk baino ez zuten iraun, parte-hartzea oro har oso txikia izan zela¹⁹. Nolanahi ere, antolamendu-egitura berri bat sortu zen eta mantendu da, jende berria biltzen jarraitzen duena.

Bigarren strategiari jarraiki, zenbait ekitaldi publiko deitu ziren, jendeak mobilizazioari atxikita jarrai zezan. Ekitaldi horietako lehena ekainaren 19ko manifestazioa izan zen. Beste hainbat hiritan gertatu zen bezala, Bilbon deialdiak arrakasta handia lortu zuen, eta antolaztaileen aurreikuspenak nabarmen gainditu zituen²⁰. Maiatzaren 15aren ondoko lehen mobilizazio-egunetan ez bezala, gizarte-mugimenduetako, GKEetako eta ezkerreko alderdi politikoetako pertsona ugari bat egin zuten deialdiarekin, nolabait talde horiek M15Mren mobilizazioetara hurbiltzen ari zirela iragartzen zuena. Gainera, kontuan hartzekoa da M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileen gogoetek gero eta zerikusi handiagoa zutela ezker alterglobalizatzailearen eta gizarte-mugimenduen jarrerekin.

¹⁹ Prozesuan parte hartzen duten pertsonak eman ziguten informazio hori, eta jarraian M15Mko mugimenduaren batzorde arteko batzarraren aktek berretsi zuten (<http://m15mbizkaia.net/> [Kontsulta: 2012ko apirilaren 23a]).

²⁰ Egindako kalkuluen arabera, 8.000-10.000 pertsona bertaratu ziren, gutxi gorabehera.




KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

4. M15Mren mobilizazioak eta komunikabideak





4

M15Mren mobilizazioak eta komunikabideak

4.1. 2011KO MAIATZAREN 19TIK IRAILAREN 15ERA BITARTE M15MREN MOBILIZAZIOEK PRENTSAN IZAN ZUTEN PRESENTZIA

M15Mren mobilizazioek ingurunearekin izan zuten harremana aztertzean, komunikabideek mobilizazioaren inguruan eman zuten irudia funtsezkoa da, komunikabideei esker M15Mren mobilizazioa garrantziko albistearen izan zelako, mobilizazioaren jendaurreko irudia sortu edo aldatu zelako, eta horrek jende gehiago erakartzea ahalbidetu zuelako. Komunikabideen diskurtsoa sistematikoki aztertu ahal izateko, atal honetarako zazpi egunkariren edizio digitalak hartu nahi izan ditugu aintzat: El Correo, Deia, Gara, El País, El Mundo, Abc eta La Razón. Hala, maiatzaren 19tik irailaren 15era bitarte egunkari horiek guztiak miatu genituen, M15Mren mobilizazioen erreferentzia argiak zituzten artikulua biltzeko²¹. Guztira 4682 artikulua bildu genituen, egunkariz egunkari honela banatuta:

1. taula

M15MREN MOBILIZAZIOEI BURUZKO ARTIKULUAK PRENTSAN NOLA BANATU ZIREN, EGUNKARIZ EGUNKARI, MAIATZAREN 19TIK IRAILAREN 15ERA BITARTE

EL CORREO	DEIA	GARA	EL PAÍS	EL MUNDO	ABC	LA RAZÓN
715	327	114	1117	1213	908	288

Bestetik, Bilboko M15Mren mobilizazioetako protagonistei egindako elkarrizketen transkripzioak aintzat hartu ditugu komunikabideen diskurtsoa eta M15Mren mobilizazioetako protagonistek esandakoa konparatzeko.

²¹ Artikuluak hautatzeko honako irizpide hauek erabili ziren: (1) «indignados» eta «plaza» («suminduak» eta «plaza») terminoak paragrafo berean daudenean; (2) honako hauetako bat ageri denean: «15M», «15-M», «15 M» edo «15 Mayo».

Jarraian, komunikabide bakoitzak lehen hilabetean argitaratutako artikuluetan erabilitako hitzak zenbatu ditugu, baita elkarrizketatutako pertsona bakoitzak erabilitako hitzak zenbatu ere, eta jarraian zerrenda bat osatu dugu, M15Mren mobilizazioak aztertzeke guretzat esanguratsuak izan daitezkeen 29 kategoriaz osatua²². 2. taulako bigarren zutabean zerrendatutako terminoak konbinatuz sortu dira kategorია horiek. Taula horren bitartez, kategoría horiek M15Mren mobilizazioei buruzko informazioetan duten pisu erlatiboa adierazi nahi da, zenbakiz eta irudiz adierazi ere, hautatutako zazpi egunkariak batera aztertuz, egunkariak banan-banan hartuz eta mobilizazioko garrantzizko parte-hartzaileei egindako elkarrizketen transkripzioak aintzat hartuz. Kategoría horiek dokumentu bakoitzean bildutako informazioaren aldean duten pisu erlatiboa kalkulatzeko, artikulua oso bat dokumentu bakartzat jo da; elkarrizketen transkripzioetan, berriz, elkarrizketaren galdera bakoitzari emandako erantzun bakoitza dokumentu bat dela hartu da aintzat (guztira, 454 dokumentu). Kategoría bakoitzeko EEHI Elkarketa Erlatibo Haztatuko Indizeak adierazten du taularen bigarren zutabeko kategorien eta M15Mren mobilizazioen arteko elkarketa-maila dokumentu-datuaren base bakoitzean (2. taulan ageri diren bezala: komunikabide guztiak batera, komunikabide bakoitza bakarka eta elkarrizketen transkripzioa). Taularen gorputzeko laukietan ageri da EEHI balio hori²³. 100dik gorako EEHI balioek zera ematen dute aditzera, kategoría hori gehiagotan ageri dela dokumentu horietan aztertutako kategoría guztien batez bestekoan baino. Hortaz EEHI indizea zenbat eta handiagoa izan (grisa zenbat eta biziagoa izan), aztertutako kategoriaren eta M15Mren mobilizazioen arteko elkarketa-maila orduan eta handiagoa izango da dokumentu horietan. Alderantziz, EEHI indizea zenbat eta txikiagoa izan (marroia zenbat eta biziagoa izan beraz), elkarketa-maila ere orduan eta txikiagoa izango da. 2. taularen azterketatik zenbait ondorio atera ditzakegu:

²² Terminoak hautatzeko metodo misto bat hautatu genuen: batetik, termino bakoitza egunkari bakoitzean zenbat aldiz agertu zen hartu genuen kontuan, eta, bestetik, zenbait hipotesi sortu genituen, kategoría bakoitzak eduki dezakeen garrantziaren inguruan. Hortaz, kontuan hartutako zenbait kategoriak, 'gatazka' eta 'indarkeria' terminoek adibidez, azkenean oso pisu erlatibo txikia lortu zuten iturri guztietan.

²³ EEHI Elkarketa Erlatibo Haztatuko Indizea hiru urratsetan kalkulaten da:

- Datu-base bakoitzean, zerrendako kategoría bakoitza aipatu duten dokumentuen kopurua zenbatzen da, baita kategoría bakoitza zenbat aldiz aipatu den ere.
- Kategoría bakoitzaren eta M15Mren mobilizazioen arteko elkarketa-intensitate horretatik abiatuta, kategoría ageri den aldien kopurua M15Mren mobilizazioen adierazgarri diren kategorien multzoa ageri den aldi kopuruaren artean zatitzen da, eta, horrela, EEH Elkarketa Erlatibo Haztatua kalkulaten da.
- Base bakoitzari dagozkion EEH balio haztatu guztien batez bestekoa 100era murrizten da, eta horrela, kategoría bakoitzari dagozkion EEH balioak EEHI indize-balio bihurtzen dira. Kategoría bakoitzerako datu-base bakoitzean lortutako EEHI balioak elkarren artean aldera daitezke, eta horrela antzekotasunak eta desberdintasunak aurki daitezke iturrien arabera M15Mren mobilizazioei lotutako kategorietan.

Gelaxketan, balioak ez ezik, kolore-eskala bat ere ageri da. Kontuan hartuta 100eko balioa base bakoitzean haztatutako balioen batez bestekoa dela, 100dik gorako EEHI guztiak grisez koloreztatu dira, eta grisa orduan eta biziagoa izango da 100eko baliotik urrundu ahala. Grisa zenbat eta biziagoa izan, M15Mren mobilizazioek orduan eta lotura handiagoa izango dute kategoría horrekin dokumentu-base horretan. 100dik azpiko EEHI indizeak, berriz, marroiz koloreztatu ditugu. Ora (korrelazio nulua) hurbildu ahala marroi-kolorea biziagotu egingo dela 2. taulak EEHI indizeari buruzko datuak aurkezten ditu, kategoriak ordenatuta M15Mren mobilizazioetako protagonistei egindako elkarrizketetan duten maiztasun erlatiboaren arabera.

1. Komunikabide bakoitzak gaiari eskainitako artikuluen kopuruaren haritik dator lehena. Deigarriena zera da, Garako oso artikulua gutxi aipatu zituztela M15Mren mobilizazioak maiztaren 19tik irailaren 15era bitarte. Aurreko atalean aipatu dugunez, hasiera-hasieratik ezker abertzaleak ez zuen M15Mren mobilizazioetan inplikatu nahi izan, eta aurreko datu horrek egiaztapen hori berretsi du.
2. Beste zenbait alde nabari dira mobilizazioan zuzenean inplikatutako pertsonen eta komunikabideen diskurtsoen artean. Zenbaitetan alde berberak nabari dira egunkari guztietan, baina beste zenbaitetan desadostasunak ageri dira egunkarien artean. Hemen datu esanguratsuenak bakarrik aipatuko ditugu:
 - Kategoria jakin batzuk askoz ere gehiagotan ageri dira M15Mren mobilizazioetan parte hartu zutenei egindako elkarrizketen transkripzioetan mobilizazioari buruzko aipamenen bat jaso duten egunkari-artikuluetan baino. Honako kategoria hauek bildu dira talde horretan: [*lana, langabezia*], [*batzarra*], [*sareak, Twitter, Facebook, internet*], [*alderdiak, sindikatuak*], [*aldaketa*], eta [*proposamenak, konponbideak*].
 - Bi kasutan, [*politika*] eta [*demokrazia*] kategorietan, EEHI indizeen batez bestekoetan ez da alde handirik nabari egunkarien eta elkarrizketen artean. Alabaina, batez bestekoen azpian, oso alde esanguratsuak ageri dira egunkarien artean. [*Politika*] kategorian adibidez, Deia eta Gara egunkarietako EEHI indizeak askoz ere handiagoak dira egunkari eta elkarrizketen batez bestekoan baino. La Razón eta ABC egunkariak, berriz, askoz ere balio txikiagoak eman dituzte. [*Demokrazia*] kategoriarako, elkarrizketen EEHI indizea pixka bat handiagoa da zazpi egunkarien batez bestekoa baino, baina [*politika*] kategorian bezala, Deia eta Gara balioak elkarrizketetan jasotakoak baino handiagoak dira, eta ABCk eta La Razónek, aldiz, askoz ere balio txikiagoak eman dituzte. Bi kasuetan pentsa liteke lerrokadura ideologikoa gertatu dela.
 - Beste zenbait kasutan, berriz, egunkariak askoz ere gehiagotan aipatu dituzte kategoria jakin batzuk M15Mren mobilizazioetan parte hartzeagatik elkarrizketatutakoekin baino. Honako hemen kategoria horiek: [*hauteskundeak, botoa*], [*manifestazioa, kontzentrazioa*], [*errespetua, zibikoa, bakea, baketsua*], [*gazteria, gazteak*], [*gobernua*], [*bozeramailea*], [*protesta*] eta [*ekonomia*].
 - [*arazoa, krisia, egonezina*] kategoria eta [*ahotsa, eztabaida, gogoeta*] kategoria izan dira egunkariak oro har gehien erabilitakoak, baina nolahi ere alde handiak ageri dira goiburuen artean El Paísek eta Garak M15Mren mobilizazioak [*arazoa, krisia, egonezina*] kategoriarekin lotu dute gainerako egunkariak baino nabarmen gehiagotan. Eta Garak gauza bera egin du [*ahotsa, eztabaida, gogoeta*] kategoriarekin.
3. Azkenik, zenbait kategoriak pisu berbera izan dute egunkarietan eta elkarrizketetan. Kategoria horietako batzuk maiz ageri dira diskurtsoan, eta beste batzuek, aldiz, oso presentzia urria izan dute:

- [Mugimendua] kategoriak garrantzi handia du datu-base guztietan, eta baseen artean aipatzeko moduko alderik ez da agertu.
- Beste zenbait kategoriak —[sistema], [legea, legezkoa], [justua, justizia], [adostasuna], [kritika] eta [etorkizuna]— oso korrelazio txikia izan dute M15Mren mobilizazioekin, aztertutako iturri guztietan.
- Azkenik, aipatzekoa da [indarkeria] eta [gatazka] kategoriek oso presentzia txikia izan dutela.



Ondorio horiek honako proposamen hauen bitartez labur daitezke:

- Oro har, M15Mko mugimendua baketsutat jotzen da, gatazka-eragile ez den mugimendutat alegia. Protagonistek ere argi ikusten dute M15Mren mobilizazioek kategoria jakin batzuekin, [politika] eta [demokrazia] kategoriekin alegia, zerikusia dutela, eta egunkariak bat datoz horretan, maila desberdinetan bada ere.
- Bilboko M15Mren mobilizazioetako zuzeneko protagonisten diskurtsoa egunkariena baino neurri handiagoan lotzen zaie arazo jakin batzuei [langabezia, lana] eta zenbait akto-

rerren [alderdiak, sindikatuak] erantzukizunari. Joera «positiboagoa» ere baduela dirudi, [aldaketa] eta [proposamena, konponbideak] kategoriek adibidez presentzia handiagoa dutelako. M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileek askoz ere gehiagotan aipatu dute internetek eta gizarte-sareek mobilizaziorako betetzen duten zeregina egunkariet baino

- Antza denez, egunkariet M15Mren mobilizazioak lotu dituzte protagonistentzat hain garrantzizkoak ez diren kategorija jakin batzuekin. Hala, M15Mren mobilizazioak gazteekin, hauteskunde-testuinguruarekin, protestekin eta egoera ekonomikoarekin lotu dituzte. Gobernuari buruzko aipamenak, halaber, elkarriketetan baino askoz ere gehiagotan ageri dira.

4.2. M15MREN MOBILIZAZIOEN EGUNKARI-TRATAMENDUAREN BILAKAERA, 2011KO MAIATZAREN 15ETIK ABENDUAREN 14RA BITARTE

Analisia osatzeko, kategorija horiek M15Mren mobilizazioei lotutako prentsa-artikuluetan 2011ko azken zazpi hilabeteetan izan duten presentziaren bilakaera ere aztertu dugu. Horretarako, aurreko kasuaren metodologiari jarraitu diogu, baina prentsa-artikuluaren gure datu-basea zabaldu nahi izan dugu, abenduaren 14ra arte argitaratuak bilduz. Kasu horretan, 3. taulako zutabeek zera adierazi dute, aztertutako zazpi egunkarietan hilabete horietan argitaratutako artikuluetan kategorija bakoitza M15Mren mobilizazioekin zenbateraino elkartu den. Azken zutabearen, garrantzizko parte-hartzaileei egindako elkarriketen transkripzioari eutsi diogu, kategoriak ordenatu ahal izateko M15Mren mobilizazioek kategorija horiekiko duten elkarketa-mailaren arabera.

Lehenik eta behin zera ikusten dugu, zazpi egunkarietan M15Mren mobilizazioei buruz argitaratutako artikuluaren kopuruak poliki-poliki behera egin duela. Ildo horretan, maiatzaren 15etik ekainaren 14ra bitarte, M15Mren mobilizazioei buruzko 2048 artikulu zenbatu dira, eta kopuru horrek poliki-poliki behera egin du (ikus taularen 1. lerroa), irailaren 15etik urriaren 14ra bitarte jasotako 364 artikuluaren kopurura iristeraino. Hurrengo hilabetearen, urriaren 15etik azaroaren 14ra bitarte alegia, behin-behineko gorakada ageri da, hauteskunde orokorren hurbiltasunarekin lotura nabaria daukana. Azarotik aurrera, erreferentziek berriz ere behera egin zuten nabarmen. Datu horiek bi joera ematen dituzte aditzera. Batetik, mobilizazioaren hasiera bateko eferbeszentzia itzali da poliki-poliki, eta bestetik, M15Mren mobilizazioak gizarte-erreferentzia bihurtu dira, ongizatearen estatua desmuntatzeko politikei aurre egiteko une jakin batzuetan aktibatzen dena, hauteskundeak gertu daudenean adibidez.

M15Mren mobilizazioak garrantzizkotzat jo ditugun kategorietara zenbateraino elkartu diren aztertzean ere zenbait aldaketa esanguratsu atzeman ditugu denborak aurrera egin ahala.

Zenbait kategoriak, [mugimendua], [batzarra], [demokrazia] eta [manifestazioa, kontzentrazioa] kategoriek adibidez, indarra galdu dute lehen hiru hilabeteen ostean. Oso litekeena da kategoria horiek kanpaldiekin eta kaleko presentziarekin lotura handia izatea, eta presentzia publikoak behera egin ahala, M15Mren mobilizazioen eta kategoria horien arteko elkarketa-maila ere behera egin izana. [Protesta] kategoriak aurrekoen portaeretatik gertu jarraitzen du; izan ere, lehen hilabeteetan gora egin eta urrira bitarte goiari eutsi bazion ere, azaroan eta abenduan kategoria horren elkarketa-indizeak nabarmen egin zuen behera.

Zenbait kategoriak elkarketa-maila handiari eutsi diote denborak aurrera egin ahala, hala nola [politika], [lana, langabezia], eta [gubernua] kategoriek. Azken hori ez zen aurrekoen garrantzi-mailara iritsi mobilizazioen lehen hilabeteetan, baina gerora dezente ageri da M15Mren mobilizazioei buruzko informazioan. Beste kategoria batzuek poliki-poliki pisua irabazi dute M15Mren mobilizazioei lotutako prentsa-artikuluetan. Horrela, esaterako, [alderdiak, sindikatuak], [arazoa, krisia, egonezina] eta [ekonomia] kategorien garrantzia hazi da, agian M15Mren mobilizazioei buruzko prentsa krisi ekonomikoari eta krisi horren ondorioei lotu zaielako bereziki.

Azkenik, «sasoiko» portaera duten kategoriak ere badaude. [Hauteskundeak, botoa] kategoriarena da kasurik argiena. Izan ere, hauteskunde-testuinguruari eta M15Mren mobilizazioei lotu zaie bereziki, nola maiatzean hala azaro-abenduan, eta ondorengo hilabeteetan, aldiz, behera egin du.

Analisi horretatik zera ondorioztatzen da, M15Mren mobilizazioek aztertutako zazpi egunkarrietan eman duten irudia aldatu dela denborak aurrera egin ahala. Hasiera batean, [demokraziaren] kalitateari eta [lanari, langabeziari] lotutako arazoei dagokienez [protestatzen duen] [mugimendu] [politikoaren] kontzeptuaren inguruan eratu zen. Neurri batean, protesta horrek [gubernua] zuen jomugan, eta jendeak [batzarra] eta [manifestazioa, kontzentrazioa] hartzen zituen hizpide mobilizatze bitartekoak izendatzeko. Hilabeteek aurrera egin ahala, irudia eraldatu da. M15Mko mugimenduak [politikari] eta [gobernalari] lotuta jarraitzen du, baina [demokraziari] buruzko errebindikazioekin eta mobilizazioarekin zuen lotura-maila jaitsi da; krisi ekonomikoarekin zerikusia duten [lana, langabezia], [arazoa, krisia, egonezina], [ekonomia] kategorien pisuak, aldiz, gora egin du. Gainera, beste aktore batzuei [alderdiak, sindikatuak] buruzko aipamenak gero eta gehiagotan ageri dira. Eraldaketa hori bi modutara interpreta daiteke: Lehen interpretazioaren arabera, bilakaera hori komunikabideen interpretazio-aldaketaren ondorioz etorri litzateke; izan ere, poliki-poliki komunikabideek krisi ekonomikoaren esparruan kokatu dituzte M15Mren mobilizazioak, [demokrazia] hobe baten aldeko hasierako eskariaren atzean zegoen sistema politikoaren funtzionamenduaren kritika ezkutatuz. Bigarren interpretazioaren arabera, M15Mren mobilizazioek gero eta lehentasun handiagoa eman diete krisi ekonomikoari eta krisi ekonomikoak pertsona multzo bakoitzarentzat dakartzan bestelako ondorioei, eta prentsa-artikuluek joera hori bere horretan jaso dute. Guk bi interpretazioak aipatu besterik ez dugu egingo, gure datuek eta metodologiak ez digutelako biderik ematen errealtatea islatzeko onena zein den jakiteko.

3. taula


M15MREN MOBILIZAZIOEI BURUZKO KATEGORIA ADIERAZGARRIEN ERABILERAREN
MAITZASUN ERLATIBOAREN HILEKO BILAKAERA EGUNKARI MULTZO BATEAN

DOK		ALDIA												ELKA-RRIZKE-TAK		
		15 MAY/ 14 JUN	15 JUN/ 14 JUL	15 JUL/ 14 AGO	15 AGO/ 14 SEP	15 SEP/ 14 OCT	15 OCT/ 14 NOV	15 NOV/ 14 DIC	15 DIC	15	15	15	15	15	15	15
		2048	1323	872	511	364	613	369	454							
24	Movimiento\$ o mugimendu\$	407,61	497,72	577,66	304,75	369,57	214,55	139,96	511,22							
28	Trabaj\$ o lan\$ o parados o desemple\$	97,04	145,79	178,69	163,51	158,98	174,42	166,40	436,05							
2	Politic\$ o politik\$	331,57	435,56	238,51	328,66	328,19	375,76	358,74	309,55							
13	Asamblea\$ asanblad\$	89,48	62,91	119,60	68,22	56,86	28,02	27,90	288,40							
25	Twitter o facebook o red o redes o internet\$ o sare\$	70,89	45,52	71,84	45,00	48,20	99,96	60,45	232,02							
7	Partido\$ o sindica\$ o sindikatu\$	129,49	98,80	84,68	317,41	198,84	201,61	258,83	181,01							
11	Cambi\$ o aldatu\$ o aldaket\$	61,93	51,23	58,43	59,40	88,11	108,65	81,65	166,11							
3	Democra\$ o demokra\$	106,72	138,14	46,38	66,57	84,69	64,71	40,41	143,62							
10	Propoñ\$ o propues\$ o solucion\$ o proposa\$ o soluzio\$ o konpon\$	84,73	85,32	101,04	77,32	70,49	143,37	73,65	129,19							
23	Eleccion\$ o vot\$ o hauteskund\$ o bot\$	530,69	148,03	92,55	144,13	176,42	490,83	725,27	83,05							
4	Problema\$ o crisis o arazo\$ o krisi\$ o malestar o (egon adj ezin\$)	75,00	159,04	138,60	126,07	159,68	135,70	214,28	80,31							
18	Voz o debat\$ o reflexi\$ o abots\$ o eztabaid\$	90,44	95,00	57,40	58,49	77,03	142,52	100,04	55,01							
29	Coordin\$ o koordin\$	2,69	5,43	3,56	2,68	3,96	4,20	4,40	54,76							
12	Manifest\$ o concentracion\$ o konzentrazio\$	204,12	183,46	298,63	298,66	182,42	110,26	58,41	40,56							
16	Sistema	16,07	34,98	25,99	9,82	22,14	26,79	23,39	34,07							
22	Respet\$ o civi\$ o paz o pacific\$ o pake\$ o zibi\$	62,06	89,06	69,36	41,80	60,34	43,69	41,06	32,35							
17	Participa\$ o partizipa\$ o parttehar\$	59,16	41,26	53,54	44,00	64,72	45,04	25,04	31,44							
20	Ley o legal\$ o lege\$	52,29	42,93	50,41	39,23	39,10	67,68	45,61	21,90							
14	Just\$ o iust\$	9,72	20,69	17,41	21,08	58,39	20,98	14,59	18,86							
26	Juventud o j6venes o juvenil o gazte\$	42,71	29,05	70,82	63,14	39,04	19,75	16,24	13,69							
19	Consens\$ o kontsents\$ o adosta\$	2,67	2,00	2,28	6,47	1,45	1,58	0,60	12,52							
21	Critic\$ o kritik\$	10,80	33,03	31,84	36,82	40,75	16,90	22,60	7,45							
8	Gobierno o gberna\$ o gobernu\$	125,62	187,98	209,74	221,05	193,97	137,98	163,36	5,17							
15	Futur\$ o etorkizun\$	15,46	16,07	7,06	16,28	15,18	18,29	30,25	3,55							
27	Portavo\$ o bozeramale\$	28,18	36,64	28,01	22,17	14,98	18,35	12,50	3,30							
1	Protest\$	136,11	107,60	173,72	204,99	187,03	64,72	46,47	1,83							
9	Economi\$ o ekonomi\$	55,53	86,10	86,83	106,25	154,02	121,14	145,95	1,83							
6	Violent\$ o biolent\$	0,87	19,82	4,03	2,75	0,58	1,13	0,57	0,76							
5	Conflict\$ o konflikt\$ o gatazka\$	0,35	0,85	1,39	3,29	4,88	1,39	1,39	0,41							

KGK

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

5.
**Zer adierazten digute
M15Mren mobilizazioek?:
ikasgaiak eta galderak**



5

Zer adierazten digute M15Mren mobilizazioek?: ikasgaiak eta galderak

Aurreko ataletan aurkeztutako analisiak agerian uzten duenez, M15Mren mobilizazioek zalantzan jarri dute erakunde politikoen eta zenbait gizarte-aktoreen zeregina. Gehiegizkoa litzateke M15Mren mobilizazioak iraultzarekin lotzea, baina mobilizazioek eta gizartean eragindako oihartzunak zenbait gai ekarri dituzte eztabaida publikora, M15Mren mobilizazioen etorkizuneko dinamikari, erakunde politikoei, gizarte-mugimenduei, eta, oro har, herritarrek gai publikoetan eduki beharreko parte-hartzeari eragiten dietenak. Eztabaida horietako batzuk zuzenean sortu dira, M15Mren mobilizazioen esanbidezko eskari eta protesten bitartez; beste batzuk, berriz, zeharka etorri dira, mobilizazioen jardun-mekanismoen bitartez. Atal honetan gai horiei buruzko gogoeta batzuk jaso ditugu, aurreko analisiaren argitan sortutakoak.

5.1. M15MREN MOBILIZAZIOEN ETORKIZUNA

M15Mren mobilizazioetatik gizarte-mugimendu bat sortuko da azkenean? Alderdi politiko bat eratuko dute? Indarrean dauden beste plataforma batzuetara bilduko da mugimendua? Denborarekin indarra galduko du? Gizarte-sareetan aurkituko du jarraitzeko eta sendotzeko plataforma? Interesgarria litzateke galdera horietarako eta antzeko beste hainbat galderatarako erantzun egokia aurkitzea, baina guk zoritxarrez ezin dugu horrelakorik egin, et ez dugu funtsik gabeko iragarpenik egin nahi, halaber, M15Mren mobilizazioetatik zer etorriko ote den. Nolanahi ere, metatutako informazioa eta azken hilabeteetako bilakaera oinarritzat hartuta, zenbait elementu aipatuko ditugu hemen, gure ustez etorkizuneko joeren iragarle izan daitezkeenak.

«Esaten dena esaten dela ere, hemendik alderdi politiko bat sortuko dela iruditzen zait. Nola? Ideiarik ere ez»

Aldez aurretik adierazi dugunez, Democracia Real Ya izeneko talde txiki batek internetetik eta gizarte-sareetatik sustatuko protesta baten haritik sortu ziren M15Mren mobilizazioak. Hasierako protesta horrek zera salatu nahi zuen, erakunde politikoak ez zirela gai gehiengoaren interesak eta borondatea ordezkatzeko, finantza-botereen mendean zeudelako. Azkenean, protesta horrek DRYren deialdiaren mugak gainezkatu zituen, eta berehala hedatu zen, ezer gutxi planifikatuta.

Mobilizazioak askotariko jendea bildu zuen, eta hasiera batean guztiek ere alde batera utzi zituzten beren desadostasunak, guztion sumindura eta protesta ardatz hartuta. Mobilizazioaren lehen etapetan, emozioak eta sormenezko adierazpideak nabarmendu ziren bereziki, ongi zehaztutako ideia eta proposamen multzo batera lerratu beharrean. M15Mren mobilizazioen helburuak adosteko eta idazteko bidean hainbat oztopo aurkitu zituzten, eta ahalegin horien ondorioz azkenean zenbait dokumentu programatiko idatzi bazituzten ere, ez dago esaterik horiek M15Mren mobilizazioen ikur bihurtu direnik.

**«Eta bertan zer zegoen ikusi
nuenean, sentitu egin nuen eta
sentimendu horrek eraman egin
ninduen, ez dakit nola azaldu,
bitxia izan zen benetan»**

M15Mren mobilizazioen nondik norakoak argitzen ari dira neurri batean, eta hori hala da parte-hartzaileen eguneroko erabakien ondorioz, eta batez ere talde jakin batzuek mobilizazioen alde tinko jarraitu dutelako. Kontuan hartuta ezein erakunde formalek ezin duela M15Mren mobilizazioen herentzia jaso edota haren izena eta historia erabili, normalena zera da, mobilizazioetan murgilduta jarraitzen dutenek azkenean «ondorengotza-eskubidea» berenganatzea. Hiri bakoitzak bere kasa diharduen arren, antza denez guztiek ere «jarraitzearen» aldeko jarrera hartu dute, eta, ildo horretan, ezker alterglobalizatzailetik gertuago dauden zenbait taldek M15Mren mobilizazioen ondorengotza hartu dute. Ezbairik gabe, horrek koherentzia ideologiko handiagoa, eta, agian, nolabaiteko egitura organikoa emango die M15Mren mobilizazioei, baina litekeena da, halaber, ideologia jakin batekiko identifikazio horrek zenbait pertsona urrunaraztea, hain zuzen ere hasiera batean parte hartu nahi izan zutenak besteak beste mobilizazioek profil ideologiko argirik ez zutelako.

Ez dakigu zenbateraino lortuko duten M15Mren mobilizazioek pertsona talde baten etengabeko parte-hartzeari eustea, baina antza denez zerbait lortu dute honezkero, batetik, gai jakin batzuk agenda politikora ekarri, eta, bestetik, modu koordinatuan mobilizatzeko gaitasun handia finkatu. Behin jendea kalera protestatzera pare bat aldiz irten ondoren, oso litekeena da mobilizatzeko gaitasun horri eustea eta berriz ere protestatzea garrantzizko gertaera politiko baten ondorioz. Horretarako, M15Mren mobilizazioen bandera eraman nahi dutenek nolabaiteko aniztasun-irudia berreskuratu beharko dute eta errebindikazioen jai-giroko molde baketsuari heldu beharko diote.

5.2. ERAKUNDE POLITIKOEI DAGOKIENEZ

M15Mren mobilizazioen bitartez, hainbat herritarrek beren atsekabea azaldu nahi izan zuten hauteskunde-prozesuen bidezko ordezkartzan oinarritutako sistema demokratikoaren

funtzionamenduari dagokionez. Argi dago krisi ekonomikoak eta horrek enpleguaren gainean dituen ondorioek eta zerbitzu publikoen murrizketek zeresan handia dutela atsekabe hori azaltzeko. Baina horregatik ez dugu pentsatu behar, inondik inora, koiuntura ekonomikoa nahigabe horren erantzule bakarra denik. Zuzenagoa litzateke esatea krisiaren ondorioz politikaren aurka protestatzeko eta politikarekiko desengainua adierazteko prozesu batzuk areagotu direla, urte askoan nolabait agerian egonagatik ere aktore politiko nagusien agendatik aparte egon direnak. Besteak beste, honako elementu hauen zeregina nabarmendu behar dugu une honetan:

«Nik badut esaldi bat: 'politika gogoko dut, baina politikakeria gorroto dut»

- Erakunde politikoak, eta, hedaduraz, Estatuaren aparatuaren zati handi bat, herritarren interes orokorra ordezkatzeko gai ez direlako pertzepzioa. Ordezkarri politikoek eta botere ekonomikoek (finantzarioak, bereziki) azken horien interesak defendatzeko erakutsitako konplizitatea izango litzateke arrazoietako bat (D. Velasco, 2011). Herritarrek susmatzen dute talde politikoek zein erakunde publikoetako kargudunek interes publikoa alde batera uzten dutela abantaila pribatuen truke. WikiLeaks-ek agerian utzi zuenez, gobernuek korporazio pribatu handien interesak defendatzen dituzte, eta horrek arnasa eman zion pertzepzio horri. Ildo horretan, maiatzaren 15eko mobilizazioetan, gai horren inguruko hainbat aldarri entzun ziren.
- Alderdi politikoek ez dute zuzen jokatu zuzenean eragiten dieten ustelkeria-kasuen inguruko erabakiak hartzean, eta zuzentasunik eza horrek ere badu zeresana erakunde politikoak deslegitimatzeke prozesuan. DRYK ustelkeria-kasuetan inplikaturako hautagaiak hauteskunde-zerrendetatik ezabatzeke proposamena egin zuen, eta M15Mren mobilizazioek bat egin zuten proposamen horrekin.
- Azken urteetan pertsonen bizitzari eragiten dioten gai nagusiei buruzko eztabaida publikorik eza. Hainbat herritarrek uste dutenez, alderdietako goi-karguek funtsezko gaien inguruko jarrerak finkatzen dituzte, epe laburrean abantaila politikoak irabazteko, eta horrela erabakiak hartzeko ahalmena politikari gutxi batzuen arteko tirabiretara murrizten da. Gainera, politikak zehazten dira, oro har, ikerketa bidez babestutako oinarri empirikorik gabe; horregatik, herritarrak ez dira politikariekin eta politikarekin fidatzen, eta konponbide «teknikoak» eskatzen dituzte.

Gauzak horrela, gobernuek ekimenen bat jarri beharko lukete abian, areago oraindik oso litekeena delako krisi ekonomikoaren iraupenak tentsioak areagotzea. Erakunde politikoek legitimitatea berreskura dezaten, zenbait ekimen jarri behar dira abian aipaturako arazoei aurre egiteko:

- Erakundeetan zenbait erreforma egin behar dira, gardentasuna sustatuko dutenak nola kudeaketa publikoari buruzko datuak herritarrengana hurbilduz hala erabakiak hartzeko prozedurak herritarren eskurago jarri.

- Botere publikoei interes ekonomikoei baino autonomia handiagoa ematea eta hori nabarmentzea. Estatuak eta enpresek elkarlanean jardun behar dute ekonomia gartzeko (Evans, 1996), baina elkarlan hori gauzatzeko behar bezalako babesak, gizarte-kontrola eta kontu-emateak gauzaten ez badira, publikoa pribatuaren mendean dagoelako pertzepzioak Estatuaren legitimitateari kalte egiten dio azkenean, elkarlan horretatik lortutako edozein abantaila suntsitzeraino. Alderdien finantzazioen gainean eta agintarien eta enpresen arteko harremanen gainean gardentasun eta kontrol handiagoa ezartzea lagungarria izango litzateke ildo horretan. Politikak lantzeko prozesuak abian jartzeak ere lagunduko luke, zenbait gizarte-aktoreri parte hartzeko aukera emanez.
- Estatuaren ezintasunari buruzko diskurtsoa aldatzea. Askotan, politikariek hartutako erabakiak ezinbestekoak direla esaten dute erabaki horiek justifikatzeko. Merkaturik, erkidegoko bazkideek eta ingurunearen berezko zailtasunek baldintzatuko lituzkete erabaki horiek. Horrelako argudioek ahalmenik gabeko Estatuaren mitoa elikatzen dute (Weiss, 2002), eta hori epe luzera kaltegarria da Estatuaren eta ordezkari-tza-sistemaren legitimitatearentzat: zertarako nahi dugu ordezkari-tza-sistema bat baldin eta eragiten diguten erabakiak beste nonbait hartzen badira? Nahikoa litzateke «ezinbesteko» politikak aplikatzeko teknikari batzuk gaitzea? Azkenean, horrelako argudioen eraginez, konponbideak politikatik aparte bilatzeko beharra indartzen da.

5.3. GIZARTE-MUGIMENDUEI DAGOKIENEZ

M15Mren mobilizazioek zerbait adierazten digute, halaber, gizarte-mugimenduen inguruan. Gizarte-mugimendu «berriak» —feminismoa, ekologismoa, pazifismoa, giza eskubideak, nazioarteko elkartasuna— gizarte-gatazkei lotutako ardatzen inguruan sortu ziren (*cleavages* ingelesez). Sindikatuen jardunaren betidaniko ardatza izan den kapitalaren eta lanaren arteko gizarte-zatiketaren osagarri edo alternatiba ziren ardatz horiek. Aldez aurretik, adierazi dugun bezala, M15Mko mugimenduaren agerkundeak ustekabeen harrapatu zituen dagoeneko hain «berriak» ez diren mugimendu horiek guztiak. Batetik, zera zioten, gizarte-mugimendu horietan jende askok urte pila bat zeramala lanean M15Mren mobilizazioek bere egin berri zituzten hainbat gaitan, baina egindako lan hori guztia orain inork ez zuela aintzat hartu nahi; okerrago oraindik, gai horiei heldzerakoan inozokeriaz, ezjakintasunez eta lotsagabekeriak jokatzen ari zirela leporatzen zieten M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileei. Bestetik, harri eta zur geratu ziren haiek inoiz izan ez duten mobilizatze gaitasun handiaren aurrean. Parte-hartzaileen ikuspegiei buruzko azterketatik eta gizarte-mugimenduetako jendearekiko harremanetatik zenbait gogoeta ondorioztatu dira, aztertu beharreko hipotesitik gehiago daukatenak enpirikoki oinarritutako baieztapenetik baino:

1. M15Mren mobilizazioetako parte-hartzaileetako batzuek zera adierazi zuten, gizarte-mugimenduak ortodoxoegiak zirela, eta horregatik ez zutela horietan parte hartu nahi. Gainera, zera uste zuten, talde horiengana hurbiltzeak, nolabait, haien diskurtso ideologikoarekin bat egitera behartzen zituela, eta beren iritzi eta ikuspegiak askatasunez adierazteko askatasunik ez zutela sentitzen zuten. Gainera, M15Mren mobilizazioen bitartez ekimen kolektibo baten eraikuntzan parte hartzeko aukera zutela ikusten zuten. Ildo horretan zenbaitek adierazi zuten lehen aldia zela beren kabuz zerbait eraikitzen ari zela sentitzen zutena, aldeztatik zehaztutako egiturak onartu beharrik gabe.

M15Mren mobilizazioetako jendeak ikuspegi nolabait inozoa zuen erakundeen eta gizarte-prozesuen funtzionamenduaren inguruan, baina ikuspegi hori baliagarri gertatu zaie gizarte-mugimenduei, gizarte parte-hartzea sustatzeko estrategia eta jardunbideei buruz gogoeta egiteko aukera eskaini dien neurrian. Batez ere, alderdi politikoek bezala, oraindik ere eztabaidagune egokiak ote diren hausnartu beharko lukete, baita ideia desberdinetara eta berrikuntzara zenbateraino irekitzen diren edo instituzionalizazioak haien diskurtsoa eta haien jardunbideak finkatu ote dituen hausnartu ere. Bestetik, M15Mren mobilizazioek zer pentsatua ematen dute, halaber, emozioek eta sormenak prozesu kolektiboen sorkuntzan betetzen duten zereginaren inguruan (Jasper, 2007), eta horrek ideologikoari lehentasuna itzultzea ekar dezake berekin.

2. M15Mren mobilizazioek banaketa-tentsioak suspertzearen inguruko hipotesia planteatu dute, ekintza kolektiboa artikulatzeko ardatz nagusi gisa hartuta. Gizarte-mugimendu «berriek» klase-gatazkaren nagusitasuna erlatibizatu zuten nolabait, beste zenbait gizarte-tentsio nabarmendu zituzten neurrian. Ildo beretik, azken bi hamarkadetako gizarte-aldaketak, ELGAko herrialde gehienetan gizarte-desberdintasunek gora egin dutela, politika artikulatzean gizartean nabari den haustura hori areagotzen ari dira (ELGA, 2011). Litekeena da M15Mren mobilizazioak joera horren adierazpen berria izatea, eta horrek agerian utziko luke erakunde sindikalak mugatuta daudela langileen interesak ordezkatzeko lana gauzatzeko zirkunstantzia historiko berrietan, non lana prekarizatzearen truke kapitalari boterea irabazteko aukera eman zaion (Diaz-Salazar, 2011).

5.4. GIZARTE-SAREEI DAGOKIENEZ

Munduko beste zenbait tokitan gertatutako mobilizazioen antzera, M15Mren mobilizazioak aztertzerakoan Interneten eta gizarte-sareen zeregina hartu behar dugu kontuan, ezinbestean. Lehenik eta behin aipatzekoa da M15Mko deialdiaren atzean dauden dinamika mobilizazionalak gehienak internetetik eta gizarte-sareetatik sortu direla. Zenbait nodok denbora asko daramate jardunean, sare alterglobalizatzaileek adibidez, eta beste batzuk sortu berriak dira, hala nola «V de Vivienda» taldekoak edota Sinde legearen aurkako sare bidezko mobilizazioak,

eta instituzionalizatu gabeko plataforma edo «eszenatoki» horiek guztiek poliki-poliki jaso eta zehaztu dituzte gero eta orokorragoa eta aldi berean gero eta espezifikoagoa den egonezin baten adierazpideak.

Bigarren, ekimen hori modu pertsonalizatuan egin dute gainera, zuzenean parte hartzeko tresna bihurtuta, herritarren interesak defendatzeko eta adierazteko kanalak ez ezik, ordezkari-tzazkoaz bestelako demokrazia-eredu bat ezartzeko bide ere izan nahi dutenak: harremanetan eta parte-hartzean oinarritutako demokrazia osatu nahi dute, herritarrei zuzenago agertzeko eta inplikatzeko aukera emanez eta ekintza kolektiborako adierazpide horizontalagoak ahalbidetuz, pertsonen «benetako munduari» eta emozioei gehiago lotuz. Horrek guztiak gizarte-sareen «bitartekotza»-zeregina azpimarratzen du, kontuan hartzekoa dena M15Mren mobilizazioetan ere bete duten zeregina balioesteko. «Ez gaituzte ordezkatzeko» oihua kaleetan barrena hedatu ahala, gizarte-sareak oso baliagarri gertatu dira ekimen horretan, ez soilik egonezina jaso eta adierazteko, baita guztion izenean dihardutela diotenekin zerikusirik ez duen politika «egiteko» ere. Politika egiteko modu berri horren adierazgarri, jendeak espazio publikoa berreskuratu du, okupazio horrek sinbolikotik errealetik baino gehiago duela onartu behar bada ere, baina gizarte-sareen bitartez garatutako zenbait ekimenen haritik etorritako hazi politikoa izan da lehergai nagusia.

Hirugarrenik, gogora ekartzekoa da mobilizazio horiek zeregin «dinamizatzailea» bete dutela, gizarte-mobilizazioaren eragileak izan diren neurrian. Ekintza kolektiboa antolatzeko eraginkorrak izan direla inork ez du zalantzan jartzen, baina balio horretatik haratago, interpelatzeko ahalmen eta indar handia ere erakutsi dute, mezu xume, labur eta sendoen bitartez herritarrek «lozorrotik ateratzea» ahalbidetu dutenak. Saretik egindako deialdiek ikaragarritzko erantzuna izan zuten ustekabeen, eta mobilizazioetan parte hartu zutenak ere ustekabeak harrapatu zituen erantzun horrek sarritan, ez bakarrik erantzunaren tamainarengatik, baita elkarretaratze horrek iritzi berdintsuak eta justizia- eta errespetu-eskakizun berberak edota antzeko itzaropenak zituzten hainbatekin bertatik bertara biltzeko aukera eman zielako ere. Hain zuzen ere, M15Mren mobilizazioei esleitu zaien balio morala, sumindura-sentimendu bat ezkutatzeko duen justizia-eta errespetu-eskakizun orokor horretan oinarritzen da.

Azkenik, gizarte-sareek ere, neurri batean, zeregin «askatzailea» bete dute, beren nortasuna indartu dutelako mobilizatze bidea ez ezik askatasuna eta gizarte-autonomia bermatzeko «gunea» ere badirela erakutsiz, nagusitasun neoliberaletik aparte kokatuz, neoliberalismoa herritarren ongizatea eta bizi-baldintzak hondatzearen eta pertsonen bizitzaren alderdi guztien merkantilizazioaren erantzule nagusia den heinean. Neoliberalismoari aurre eginez, gizarte-sareek Interneten kultura askeko ekimenak baliatu dituzte, Wikipedia adibidez, adierazpen- eta ekintza-askatasunerako bitarteko indartsuak diren heinean, eta horrek berretsi egiten du bitarteko horiek, sistema instituzionalaren aldean, harremanetan jartzeko eta gizartearen eragiteko indar handia dutela. Nolabait, ekimen aske horiek gizarte-sareen bitartez sortu eta finkatu dira, «gauzak beste era batera egiteko» asmoarekin. Ez hainbeste «alternatiba» izateko, baizik eta

askatasunaren aldeko eta askatasunerako gune bat izateko kezkarakin, eta horren adierazgarri dugu M15Mren mobilizazioak behin eta berriz ahalegintzen ari direla banakoen protagonismoetatik ihes egiten, estutasun arau-emaile edo uniformetzaileak saihesten edo mota guztietako kluxe ideologikoetatik bereizten. «Ez gaituzte ordezkutzen» edo «agindutakoa ez dute betetzen» oihuei, Interneten sustatutako eta gizarte-komunitateetan sendotutako ekimenek «ez gara zuek bezalakoak» aldarria erantsi diote.

M15Mren mobilizazioen dinamikak gizarte-sareen bitartez aztertzeak zenbait gogoetagai hurbildu dizkigu, funtsean erronka jakin batzuk planteatzen dituztenak, parte-hartzearen kalitateari, legimititatearen eraikuntzari eta mantentzeari edo erantzun politikoa emateko makro-halmenari loturik. Analisi horrek gizarte-sareen zenbait muga ere jarri ditu agerian, hala nola sumindura orokorraren adierazpen guztien artean legimititatea eta ñabardurak bereizteko zailtasuna, edota haien indar eraldatzailea denboran iraunarazteko eta zehazteko zailtasuna.

5.5. PARTE-HARTZE POLITIKOARI BURUZKO AZKEN GOGOETA BAT

Azken urteetako inkesta soziologiko gehienek desmobilizazio politikoko prozesu iraunkorra erakusten zuten, bereziki indartsua gazteengan. M15Mren mobilizazioaren larrialdiak badirudi inkesten kontrakoa adierazten duela, benetakoa al da kontraesan hori? Guk ezetz uste dugu. M15Mren mobilizazioa politikarekiko susmoa duen politika egiteko modu bat da, bere izaera politiko propioa disimulatzen duena. Elkarrizketatutako pertsonak, nahiz eta etengabe politikaz hitz egiten ari diren, izaera politikoa duen mugimendu batekin identifikatzen zaienean deseroso sentitzen dira. Berehala distantzia hartzen saiatzen dira «baina» hitza erantsiz: politika interesatzen zaigu baina «ez gara alderdikoiak», «politikoeziko desberdinak gara» eta abar. Erreakzio hori ez da harriztekoa. Gutxienez bi hamarkadatan politika susmopean jarri da hainbat ikuspegitatik. Alde batetik, neoliberalismoak politikari bere gatazka-educia kendu nahi izan zion eraginkortasun ekonomikoko printzipioen bidez politika alderdi publikoaren kudeaketa tekniko bihurtzeko. Interes, egiteko modu edo botere-asimetria desberdinak izateari buruzko edozein erreferentzia baztertu egin zen modaz pasatuko politikaria gisa. Herritar gehienak gustatzen ez zitzaigun baina azaleko ongizate bat lortzearen onartzen genuen errealitate baten ikusle ziniko bihurtu ginen. Testuinguru horretan sortzen da M15Mren mobilizazioa eta bere gaitzespena ez dago arlo politikoaaren susmotik kanpo. Mobilizazio horretan egungo erakunde demokratikoen defendatzaileak eta parte-hartze

«Ondo erreparatuz gero ikus daiteke, etsai ikusezin horri eraso ikusezinarekin erantzuten ari garela. Etsai itxuragabea eta eraso itxuragabea. Ez dakigu haiek zein diren bada zuek ere ez dakizue gu zein garen»

zuzena eta Estatuaren boterearen deszentralizazioa aldarrikatzen duten demokrata erradikalak aurki ditzakegu aldi berean, autoerregulazioa defendatzen duten libertarioak eta teknikariei leku gehiago emateko politikaren eremua murriztu behar denaren uste osoa dutenak. Hori bai, denek nahi dute Estatuak gizarte-zerbitzuak defendatzea eta finantzatzea. Oraindik finkatzeko beharra duenaren anbiguotasuna da.

Gogoeta horien ondoren, amaitzeko, M15Mren mobilizazioak planteatutako zenbait erronka aurkezten ditugu modu laburrean


- M15Mren mobilizazioak zalantzan jarri du erakundeek herritarren gehiengo ordezkatzeko duten legitimitatea. Egoera horrek gardentasuna sustatzen duten erakunde-aldaketak eskatzen ditu, herritarren kudeaketa publikorako sarbideari nahiz erabakiak hartzeko prozedurei dagokienez.
- Sistema demokratikoaren legitimitatearentzat bereziki hedatutako pertzepzio kaltegarria da botere politikoa elite (nazionala nahiz nazioartekoa) ekonomiko eta finantzarioaren interesen mende dagoela pentsatzea. Sistema demokratikoaren legitimitatea sendotzeko beharrezkoa da botere politikoek gehiengoaren interesei erantzuten dietela ezartzea eta agerian uztea, baita talde ekonomiko handien interesekiko autonomoak direla ezartzea ere. Horretarako lagungarria izango litzateke alderdi politikoen finantzaketari eta agintarien eta enpresen arteko harremanei dagokionez, gardentasun eta kontrol gehiago izatea.
- Era berean, beharrezkoa da politikak lantzeko prozesuetan talde ekonomiko handiez gain ikuspegi alternatiboak eskaini ditzaketen hainbat gizarte-taldek ere parte hartzea.
- Estatuaren ezintasunari buruzko diskurtsoa aldatu behar da. Askotan, zenbait politikari ezinbestekoak direla esanez ekiten zaie (merkatuek, erkidegoko bazkideek eta abarrek eskatzen dituztelako). Argudio horiek Estatuaren ezintasunaren mitoa elikatzen dute eta azkenean, Estatuaren eta ordezkatze-sistemaren legitimitatea higatzen dute.
- Gizarte-mugimenduek baita alderdi politikoek eta sindikatuak ere, gizarte parte-hartzea sustatzeko dituzten jardunbideei eta estrategiei buruzko azterketa egin beharko lukete. Bereziki, planteatu beharko lukete zenbateraino jarraitzen duten eztabaidagune izaten, ideia desberdinei eta berrikuntzari irekita edo zenbateraino instituzionalizazioak haien diskurtsoa eta jardunbideak finkatu dituen.
- Garrantzitsua da gizarte-sareek parte-hartzea sorrarazteko kanal gisa duten gaitasuna aztertzea. M15Mren mobilizazioak pertsonak erakartzeko eta sareko eztabaidak espazio publikora helarazteko gaitasuna erakutsi du. Aztertzeke dago zenbateraino eta zer baldintzatan sendo daitekeen parte-hartze mota hori eta aldaketa sakonagoak eta iraunkorragoak sortu, parte-hartze politikoko era desberdinetan nahiz erakundeetan.

KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

Bibliografia






Bibliografia

- «Aguirre teme que la izquierda manipule el movimiento de Sol en contra del PP». [linean]. *El Mundo*. 2011ko maiatzaren 18a. <http://www.elmundo.es/elmundo/2011/05/18/madrid/1305722627.html> [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- ÁLVAREZ, K. ... et al. *Nosotros los indignados*. Bartzelona: Destino, 2011.
- «An awakening that keeps them up all night» [linean]. *The New York Times*, 2011ko ekainaren 7a, A4 orr. http://www.nytimes.com/2011/06/07/world/europe/07spain.html?_r=3&pagewanted=1&hp [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- ANTENTAS, J. M. ... et al. *Las voces del 15-M*. Barcelona: Los libros del lince, 2011.
- «Aznar considera al 15-M 'extrema izquierda marginal antisistema'». [linean]. *La Razón*, 2011ko urriaren 17a. <http://www.larazon.es/noticia/2370-aznar-considera-al-15-m-extrema-izquierda-marginal-antisistema> [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- BILBAO GAZTAÑAGA, MIREN; TRABADA CRENDE, ELÍAS. *Herritarren parte-hartzeari eta Europar Batassunari buruzko EAEko gazteen iritziak*. [linean]. Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2011. Webean eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/noticia/joerak_3/es_liburua/adjuntos/joerak_3_tendencias.pdf [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- CASQUETE, J. M. «El movimiento de los indignados». *Claves de razón práctica*, 2011, 214. zk., 30.-33. orr.
- «Cayo Lara: 'Con el 15-M va a cambiar el curso de la historia'». [linean]. *Público*, 2011ko maiatzaren 26a. <http://www.publico.es/espana/377067/cayo-lara-con-el-15-m-va-a-cambiar-el-curso-de-la-historia-elecciones2011> [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- DÍAZ-SALAZAR, R. «15-M y 22-M. ¿Qué futuro político podemos construir?». *Iglesia Viva*, 2011, 246. zk., 111.-115. orr.
- DRY-GIPUZKOA. *Democracia Real Ya*. [linean], 2011ko maiatza. http://democraciarealyagipuzkoa.blogspot.com/2011_05_01_archive.html [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- ELZO, J.; SILVESTRE, M. (Eds.). *Un individualismo placentero y protegido: cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2010.
- EVANS, P. «Government action, social capital and development: reviewing the evidence on synergy». *World Development*, 1996, 24. bol., 6. zk., 1119.-1132. orr.

- IKERKETA SOZIOLOGIKOKO KABINETEA. *Kultura demokratikoa*. [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2011. Webean eskuragarri: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_10cultura_democratica/es_culdem/adjuntos/10cultura_democratica_es.pdf [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- IKERKETA SOZIOLOGIKOKO KABINETEA. *Retratos de Juventud*. [linean] Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 1997. Webean eskuragarri: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-14452/es/contenidos/informacion/retratos_juventud/es_ret_juve/retratos_juventud.html [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- GOODWIN, J.; JASPER, J. M. (Eds.). *The social movements reader: cases and concepts*. Oxford: Willey-Blackwell, 2009.
- HESSEL, S. *¡Indignaos!* Bartzelona: Destino. 2011.
- «Los indignados increpan a Cayo Lara durante un desahucio en Madrid» [linean]. http://www.elpais.com/articulo/espana/indignados/increpan/Cayo/Lara/durante/desahucio/Madrid/elpepunac/20110616elpepinac_10/Tes [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- JASPER, J. M. *The art of moral protest: culture, biography, and creativity in social movements*. Chicago: The University of Chicago Press, 2007.
- «La manifestación de 'indignados' reúne a varios miles de persona en toda España». [linean]. *El País*. 2011ko maiatzaren 15a. http://www.elpais.com/articulo/espana/manifestacion/indignados/reune/varios/miles/personas/toda/Espana/elpepuesp/20110515elpepunac_12/Tes [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- McADAM, D.; MCCARTHY, J. D.; ZALD, M. N. *Comparative perspectives on social movements: political opportunities, mobilizing structures, and cultural framings*. Cambridge: Cambridge University Press, 1996.
- McADAM, D.; TARROW, S.; TILLY, C. *Dynamics of contention*. Cambridge: Cambridge University Press, 2001.
- GAZTERIAREN EUSKAL BEHATOKIA. *Euskadiko Gazteak*. [linean]. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. Webean eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/es_liburuak/liburuak.html [Kontsulta: 2012ko otsailaren 21a].
- OECD. *Divided we stand: why inequality keeps rising*. Paris: OECD Publishing, 2011.
- OPP, K.-D. *Theories of political protest and social movements: a multidisciplinary introduction, critique, and synthesis*. London: Routledge, 2009.
- SANTAMARÍA, A. «La rebelión de los indignados: reflexiones a pie de acampada». *El Viejo Topo*, 282.-283. zk., 2011, 21.-25. orr.
- «Spain's indignants: Europe's most earnest protesters». *The Economist*. 2011, uztailaren 14a.
- TAIBO, C. *El 15-M en sesenta preguntas*. Madril: Libros de la Catarata, 2011.
- TAIBO, C., et al. *La rebelión de los indignados*. Madril: Editorial Popular, 2011.
- TARROW, S. *Power in movement: social movements and contentious politics* (2. ed.). Cambridge: Cambridge University Press, 1998.

- TILLY, C. *Contentious performances*. Cambridge: Cambridge University Press, 2008.
- TILLY, C.; WOOD, L. *Social movements 1768-2008*. Boulder: Paradigm Publisher, 2009.
- VAN GELDER, S. *This changes everything: Occupy Wall Street and the 99% Movement*. San Francisco: Berrett-Koehler Publishers, 2011.
- VELASCO, D. «La creciente deslegitimación de la política». *Iglesia Viva*. 2011, 246. zk., 7.-28. orr.
- VELASCO, P. *No nos representan: el manifiesto de los indignados en 25 propuestas*. Madrid: Planeta, 2011.
- WEISS, L. *States in the Global economy*. Cambridge: Cambridge University Press, 2002.



KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

Egileak






Egileak

JAVIER ARELLANO YANGUAS Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroko iker-tzailea eta irakaslea da. Sussex-eko Unibertsitateko Institute Development Studies institutuaren Garapen Azterlanetan Doktorea da; era berean, Unibertsitate horretan Gobernantza eta Garape-neko Masterraren titulua lortu zuen. Bere lana honako hauetan oinarritzen da: baliabide natura-len gobernantza, gizarte-gatazkak, deszentralizazio-prozesuak, gizarte zibilaren eta gizarte-mu-gimenduen zeregin politikoa eta zerga-politiken eta garapenaren arteko erlazioa. 1996-2006 aldian ALBOAN izeneko GKEn zuzendaria izan zen eta azken urteetan hainbat nazioarteko erekunderentzat kontsultore gisa lan egin du.

IZIAR BASTERRETXEA MORENO Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko irakaslea da eta bertan garatu du bere jardun akademiko guztia. Soziologian Dokto-rea (Deustuko Unibertsitatea) eta Zuzenbidean lizentziatua (UNED). Bestalde, Deustuko Uniber-sitateko Balioen Taldeko kidea da eta talde horretan «Gizarte modernoa, politika eta erlijioa» izeneko arloan lan egiten du, genero-gaiei eta araudiaren eta gizartearen arteko loturei arreta berezia eskainiz. Gaur egun *Latinoamerikako giza baliabideen prestakuntzarako UNESCO-San-tander Katedraren* zuzendaria da.

CRISTINA DE LA CRUZ AYUSO, Filosofian Doktorea da eta gaur egun Etikako irakaslea Deustuko Unibertsitatean. *Nazioarteko eta Kultura arteko Ikasketetako* Doktorego Programaren zuzendaria da baita *Gizartea eratzeko Etikako* Unibertsitate Masterraren zuzendaria ere. Bestalde, Deustuko Unibertsitateko Etika aplikatuko Zentroaren Batzordean parte hartzen du eta Batzorde horren ikerketa-taldea koordinatzen du («*Gizarteko Errealitateari Aplikatutako Etika*»). Europako eta Latinoamerikako Unibertsitate askotako irakasle eta ikertzaile bisitaria da, antolamendu-etikarekin zerikusia duten alderdietan hainbat gizarte-ekimenen eremuan aholkua emanaz.

SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA Informazio Zientzietan lizentziatua da (EHU) baita *free lance* argazkilaria ere. Argazkigintza eta kazetaritza uztartzen ditu normalean, bereziki mendiko eta etnografiako lanetan. Paisaiaren eta giza esperientziaren arteko loturan duen interesa dela-eta, behin eta berriz Euskadiko industria-ondarea izan da bere argazkien xedea. Gainera, ETBko «La mirada mágica» izenburuko programan gidoigile gisa parte hartu du eta Espainiako nahiz Frantziako aldizkariekin eta argitaletxeekin lan egiten du. Gaur egun, argazki-kazetaritzan jarrai-tzen du eta artista musikalen jarraipena egiten du Kepa Junkerarekin batera.




KGK

COLECCIÓN GAZTEAK BILDUMA

Eranskin metodologikoa





Eranskin metodologikoa

1. DATU-BILKETAREN METODOLOGIAREN INGURUKO OHARRAK ETA HORIEN AZTERKETA

Azterlan honen erdiko zatia Bilbon M15Mren mobilizazioei buruz jasotako datu enpirikoe-tan oinarritzen da. Gutxienez, lau datu mota erabili ditugu eta datu horiek hainbat metodo era-biliz bildu eta aztertu dira:

1. **Inkestak.** Maiatzaren 20tik 22ra ezaugarri demografikoei eta motibazioei buruzko inkestak egin zitzaizkien Arriagako mobilizazioetan parte hartu zuten 222 pertsonari. Laginaren tamaina eta elkarrizketatu beharreko pertsonen ezaugarriak zehazterakoan zailtasun bat aurkitu genuen, hain zuzen ere alde aurretik ez genekielako zenbat per-sona eta zer ezaugarritakoak bertaratuko ziren mobilizazioetara. Arazo horri irtenbi-dea emateko honako hau erabaki genuen: inkestatzaileen zaletasunak nahiz eguneko ordu desberdinetan bildutako pertsonen aniztasunak inkestatu beharreko pertsonak hautatzerakoan sor zitzaizkien hautaketa-alborapenak murrizteko moduan egitea inkestak. Horretarako, 25-60 urteko 10 inkestatzailearen (emakumeak eta gizonak) laguntza izan genuen. Inkestatzaileek eguneko une desberdinetan egin zituzten inkes-tak, mobilizazio handieneko hiru egunetan; plazaren inguruan mugitzeko eta haien ustez inguruan zegoen taldearen ordezkari adierazgarriak izan zitezkeen adin desber-dinetako pertsonak elkarrizketatzeko eskatu zitzaizen.

Hori dela-eta, jarraitutako metodologiaren arabera ezin da ziurtatu hautatutako la-gina Bilboko M15Mren mobilizazioetan parte hartu zuten pertsona guztien estatis-tikoki adierazgarria denik. Alabaina, mobilizazioaren dimentsioa, egindako inkesta kopurua eta bilketa-estrategia kontuan hartuta, uste dugu bildutako datuek parte-hartzaileen ezaugarriekiko eta haien motibazioekiko hurbilketa on bat eskaintzen dutela.

2. **Elkarrizketa sakonak.** 'Elur bolaren' metodoa erabili genuen Bilboko M15Mren mobili-zazioetan lidertza-zereginak beren gain hartu zituzten pertsonak identifikatzeko. Arri-a-ga plazan bertako pertsona aktiboenei 'antolaketako' pertsonetaz galdetu genien. Hainbat elkarreraginen ondoren, ezbaierik gabe, maiatzaren 25eko mobilizazioetan ze-regin garrantzitsua zuen pertsona-talde bat identifikatu genuen. Pertsona horiekin

izandako aurretiazko topaketetan beste pertsona batzuen izenak eskatu genizkien, eta azkenean, 18-20 pertsonatako talde bat identifikatu genuen (adostasun zabala zegoen horien inguruan). Azkenik, talde horretako 14 pertsona elkarrizketatu genituen (eta beste bi elkarrizketa egin ziren lidertza-zereginik gabeko pertsonen artean). Elkarrizketak oso-osorik grabatu ziren elkarrizketatuen baimenarekin eta egin zitekeen edozein azterlanetan anonimatuari eusteko konpromisoarekin. Ondoren elkarrizketa horiek transkribatu egin ziren.

Elkarrizketa sakonetatik lortutako datuak bi modutan erabili dira. Alde batetik, Bilboko M15Mren mobilizazioen sorreraren eta garapenaren narrazioa berreraikitzeke balio izan zuten. Bestetik, transkripzioen edukia aztertu zen, elkarrizketa horietan eta auke-ratutako egunkari batzuetan zenbait kategoria erabiltzeko modua konparatzeko (ikus 4. atala). Edukien azterketa hori 'BR search' programarekin egin zen eta Euroisa enpresaren laguntza izan genuen.

3. M15Mren mobilizazioen zazpi egunkaritako identifikazioaren azterketa eta elkarrizketatutako pertsonen diskurtsoarekiko horren konparaketa Eroisaren —**komunikazio-fluxu idatzien azterketan** espezializatutako enpresaren— laguntzarekin burutu zen. Ikerketa-taldeak ezarritako irizpideei jarraiki, Euroisak 2011ko maiatzaren 15etik abenduaren 14ra bitartean M15Mren mobilizazioak berariaz aipatu zituzten artikuluen eguneroko jarraipena egin du. Bestalde, artikuluko guztiak eta mobilizazioetako funtsezko parte-hartzaileei egindako elkarrizketa sakonen transkripzioak testu osoa biltzen duten datu-baseak bihurtu ditu eta horien edukiak konparatu egin ditu, egunkari bakoitzeko diskurtsoan eta elkarrizketatutako pertsonen diskurtsoan kategoria adierazgarri batzuk (beren hiztegiak identifikatu ondoren hautatutakoak) duten garrantzi erlatiboa neurtuz. Emaitzak EEHI Elkarketa Erlatibo Haztatuko Indizeen bidez aurkezten dira, hau da, kategoria bakoitzaren eta komunikabide bakoitzaren edo aktore bakoitzaren M15Mren mobilizazioei buruzko aipamenaren arteko elkarketa erlatibo haztatuko indizeak. Metodologia hori 4. idatz-zatian azaldu da laburki
4. Azkenik, batzarretan, kontzentrazioetan eta manifestazioetan **parte hartzea** ere M15Mren mobilizazioei buruzko informazioa lortzeko metodo garrantzitsua izan da. Sarbide mota hori, jakina, subjektiboa da ezinbestean, baina horrek ez dio garrantzirik kentzen zenbait dinamika ulertzeko orduan.

Gainera, maiatzaren mobilizazioei buruzko informazioaz gain, 2.2 atalean, politikaren eta gizarte parte-hartzearen inguruan EAEko 21-35 urteko biztanleriak duen jarrerari buruzko datuak erabili dira. Datu horiek Ikerketa Soziologikoko Kabineteak eman zituen «Kultura demokratikoa» izenburuko azterlanaren informaziotik esanbidez eskatu zitzaizolako. Adin-tarte horri dagokion lagina 504 pertsonaz osatu zen; pertsona horiek hautatutako adinetako biztanleria osoa ordezkatzeko zuten, lagin-errorea % 5 baino txikiagoa izanik.

2. ARRIAGAKO MOBILIZAZIOKOEN PARTE-HARTZAILEEI EGINDAKO INKESTETAKO GALDERAK

Inkestatzailea _____ Data _____ Ordua _____

G E Adina _____ Udalerria _____

Ikasketak _____ Lana _____

1. Zergatik etorri zara?
2. Nola izan duzu honen berri? (komunikabideak, pertsonak...)
3. Nondik jasotzen duzu informazioa?
4. ¿Mobilizaziora bertaratzeak mobilizazioari buruz zeneukan irudia aldatu du?
5. Zenbat egunetan etorri zara? Etorritakoan, zenbat denbora geratzen zara?
6. Beste erakunderen bateko partaide edo laguntzaile zara? (alderdi politikoa, gizarte-mugimendua, GKE, Eliza...)
7. Mobilizazio honek beste mobilizazioen bat gogorarazten dizu? Zein? (nazionala edo atzerrikoa)
8. Berez ez bada gogoratzen honako hauen artean aukeratzeko esan:
68ko maiatza / Tianamen / Tunisiako, Egiptoko eta Libiako protestak / Islandia ?
9. Zer lortu nahi duzu?
10. Botoa eman ohi duzu? Orain botoa emateko asmorik baduzu? Zergatik?
11. Zerbait gehitu nahi duzu?
12. Askatasun osoz, axola al zaizu hemendik egun batzuetara berriro zurekin harremanetan jar-tzea gauzak nola doazen jakiteko? Non aurki zaitzakegu?

3. ELKARRIZKETA SAKONETARAKO GIDOIA

Elkarrizketatzailea _____ Data _____ Ordua _____

G E Adina _____ Udalerria _____

Ikasketak _____ Lana _____

1. Nor zara? (Bizi-ibilbide laburra, bestelako gizarte-jarduerako parte-hartzeen historia, alderdiak, mugimenduak eta abar)
2. Zergatik egin duzu bat ekimen honekin?
3. Nola egin duzu bat? Nork edo zerk animatuta? Nola iritsi zinen honaino?
4. Noiz egin zenuen bat ekimenarekin?
5. Mobilizazioarekin bat egin ondoren hari buruz zenuen pertzepzioa aldatu da?
6. Zure koordinazio-zereginen norekin erlazionatzen zara? Zertarako? (antolaketa-elementuen plangintza, baliabide materialak, informazio orokorra, mezuak lantzea eta komunikazioa, beste taldeekiko harremana)
7. Egon al dira zurekin zuzenean harremanetan jarri diren pertsonak edo taldeak? Zein?
8. Noiz utziko zenuke mobilizazioa?
9. Beste mobilizazioen batekin harremanik baduzue? Iraganeko zer mobilizazioekin identifikatzen zara gehien? (utzi berez erantzuten). Ez badute erantzuten honako zerrenda honetatik aukeratzen utzi:
 - 68ko maiatza
 - Tianamen
 - Tunisiako, Egiptoko eta Libiako protestak
 - Islandia
 - ¿?
11. Beste gizarte-mugimenduekin harremanik izan duzue mobilizazio-egun hauetan? Norekin?
12. Nola sortu dira antolaketa-egitura eta gutxieneko arauak? Nola ezarri dira zereginak eta lidertzak?



